

# uk

224. zenbakia / 2012ko abenduaren 4a



# BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO SARRERA BIREN ZOZKETA

Azaroak 15, 17:30 BILBOKO MIRIBILLA

**ZOZKETAN PARTE HARTZEKO** deitu UK bulegoko zenbakira **94 491 13 37** edo bidali mezua **uk@aldizkaria.biz** eposta helbidera zure izen abizenak eta kontakturako datuak emanez.

Bizkaiko Bertsozale elkartearen eta UK-ren ekimenez

**uk**

UK Martikoena 16, 2. solairua 1. bulegoa. 48992 GETXO UK 94 491 13 37 • 688 693 195 UK uk@aldizkaria.biz [www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz) nik ere gure dot

PASIOAK LEHEN ERE BAZUEN BERE KOLOREA, ORAIN FORMA EMAN DIOGU

www.renault.es / 902 333 500

BETI GOGORATUKO DUZU IKUSI ZENUEN LEHEN ALDIA.

- Energy motorizazio berriak - TCe eta dCi - 90ZP
- 5 izar Euro NCAP (2012 testa)
- Multimedia ukipen-pantaila nabigatzailearekin

**RENAULT CLIO BERRIA** **DRIVE THE CHANGE**

Clio Berriaren gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,6 eta 5,5 bitartean. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km) 93 eta 127 bitartean.

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE ETORBIDEA, 94. TEL 944 80 42 90. LEIOA · [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea  
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga  
 ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Pedro Garcia Larragan, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea  
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Areetako Puntu Lila.
6. FACEGUK. Zelan ospatuko zenuke Euskararen Eguna?
7. LEHEN ETA ORAIN. Maria Kristina parkea, Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Matias Barreiro.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

**SAKONEAN**

26. ALBUMA. Getxoko Komiki-Azoka.
28. ARGAZKIA. Plentziako portua.
30. BERBETAN. Xabi Paya.
34. FOTOGRAFIA. Mikel Alonso.
40. SAKONEAN. Lemoizko zentral nuklearra.

**KULTURA ETA AISIA**

42. ZINEMA. Mendi Film Festival.
43. MUSIKA. Gibelurdinek taldearen estreinako lana.
44. LIBURUAK. Durangoko Azoka.
45. KIROLAK. Olatu handien lehiaketa Punta Galean.
46. MUNDUKATUAK. Asier Goñi Urtiaga.
47. JENTILKOKA. Maju.

**AMAITZEKO**

49. PINTXOTAN. Kalabazina gazta eta tipulagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Gorlizko brodatzaileak, 1948.
54. AITORMENAK. Reyes Prados.

Azala: Mikel Alonso

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Xabi Paya

**Berbetan**

Xabi Payagaz berba egiteko gogoia genuen aspaldi, eta berbaldi luzean jardun dugu oraingoan.



11 Matias Barreiro



46 Reyes Prados

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

**Kontu zenbakia (20 digito)**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

**Leihatila**

&gt; Amaia Arriaga

**Kalean**

Erandion, kalean noala, baten bat euskaraz berba egiten entzunez gero, burua jiratu eta begiratu egiten dut ea ezaguna dudan, urri da-eta gurean euskarazko berbotsa. Eta arau soziala erdaraz egitea dela erakutsi dute, zelan ez, kaleneurketaren emaitzek: ehunetik 1,3 baino ez da kalean euskarazko jarduna, eta euskara umeekin batera dabil gurean; bestela ez dabil.

Gainera esanguratsua da gazte bat bera ere ez entzutea euskaraz berba egiten, beste hizkuntza batzuk ia euskara beste entzutea, eta euskararen erabilera estatistikoki espero daitekeena baino txikiagoa izatea.

Horrela, badakigu zer daukagun. Baina, pilates irakasleak esaten digun moduan, garrantzitsuagoa da zer nahi dugun ondo irudikatzea, lortu nahi dugunari atxikitzea, eta besoak ez gurutzatzea, gurutzatuta gure energia trabatuta geratzen delako.

Euskaldunon topaguneak mugimendu izatea erabaki du. Ea mugimendu horrek nagiak astintzen eta euskaldunon arteko harreman-sarea zabaltzen laguntzen digun.

**Iritzia**

sOrtua lako ekimenen garrantzia azalarazten duen hurrengo artikulua jaso dugu:

# Ortuetatik kolektiboa eraikitzen

Gaur lagun batzuk herriko plazan elkartu gara. Txabi irribarretsu hurbildu zaigu. Bere Andra Mariko ortuan lehenengo barazkiak ari dira hazten, momentuz lotsati egin dute estreina agerraldia, baina haren esanetan, etorkizun koloretsua eta indarrez bete dute aurretik. Txabik Egizuk bultzatutako sOrtua ekimenean parte hartzen du, euskara eta ekologia sustatze-

**«sOrtua bezalako ekimenetan badugu argialdia»**

ko asmoarekin gauzatutako gune ireki eta hedatzailean. Berri on honek hasiera batean barazkiekin presta daitezkeen hamaika errezeta kontatzera eraman gaitu, baina laster auzolana gaiarekin egin dugu topo.

Belaunaldi indibidualista da gurea: auzokoak igogailuetan agurtzen ditugun ezezagunak dira; kaleak, bakoitzaren beharrak asetzeko komertzioen kokapen txepelak; eta erlojuak, besteekin igarotzen dugun denbora kontrolatzen duten gupidarik gabeko tramankuluak. Akaso, urtean behin herriko jaietan daukagu kolektiboaren parte sentitzeko aukera bakarra eta tamalez okasio hori gero eta murriztagoa

da, ordaindu beharreko aisialdi eredu komertzialaren erruz.

Beraz, dirua tartean ez duten proiektuak altxorra dira egungo jendartean. Zoritxarrez, horrelakoetan oztopoak dira nagusi. Kasurako, oraindik ikus daiteke Kukutza Gaztetxeak Errekalde auzoan utzitako hutsunea (fisikoa zein sinbolikoa). Hura zen auzolana eta elkartasuna suspertzen zituen elkargunea, interes pribatuen izenean suntsitua. Herritarrok sistema sozioekonomiko honen inertzian murgilduta, administrazio eta enpresetako arduradunengan jarri dugu erabakitzeke ahalmena. Herritar izatetik bezero izatera pasatu gara, zerbitzu-hartzaile hutsak. Hala, gehienok gure beharrak eta nahiak noiz asebeteko dizkiguten itxaroten gabiltza, sehaska-umeen modura.

Dena dela, iluntasun honetan badago argizpiririk. sOrtua bezalako ekimenetan badugu argialdia, txikia bai, baina erudugarria. Krisialdi testuinguru honetan aukera paregabea dugu gure etxeetan ezkatututa egotera eraman gaituen eredu sozioekonomiko honen loturak apurtzeko eta plazara (baratzera!) ateratzeko. Gerora begira, eta paralisi hau gainditzeko asmoa baldin badaukagu, sare sozialak, auto-kudeaketa eta auzolana eredutzat hartu behar ditugu. Arazoaren muina maila indibiduala eta kolektiboa uztartzean datza, batetik, bakoitzak taldeari eman diezaiokeen aberastasuna zainduz eta bestetik, alboan dugunarekiko interdependentzia onartuz.

Gaurkoan baikor egin dugu etxerako buelta. Dagoeneko Andra Mariko ortuetan ekin diote haziak ereiteari. Denborarekin, barazkiekin batera beste hainbat etekinek osatuko dute uzta: elkartasuna, ekologia eta euskara. Egunez egun sare horiek josten joango dira, egunero-kotasunak dakarren kadentzia geldoaz, beharbada eraikitzen ari direnaren handitasunaz jabetu gabe.

Leire Idarraga Espel

(Berdintasunerako teknikaria)

UK-ko lan-taldea

**gu geu**

## Atzera eta eurrera

Hurbil-hurbileko kontuak oraingoan ere, irakurle! Atzera begiratu eta lotu diren arrastoen barri emongo dizute batzuek, ostera, besteek, aurrerantzean datozen hainbat konturen gaineko informazioa helaraziko dizute.

Urteko azken aurreko zenbakia izanik, urte amaierara heldu garel "pozarren"-edo, atzera begira ipini gara geu ere. Sanjuan-sura bota genituen zerranda haiek datozkigu gogora, eta ederto egin genuela ondorioztatzen dugu orain. Aitzitik, eurrera ere begitu behar! Eta *largabista* hartu baino, badaezpada... Hurrengo UK-k zer ekarriko duen aurreratuko dizugu, asko ez bada ere, Fotografia atalean aurkituko duzuna. Olentzero gurera alde aurretik eta Berango aldetik heldu dela emoten du. Otzara Getxoko argazki zaharrez beteta dakarrela eta, baten batzuk utzi dizkigu, Fede Merino jatorrizko izendapenagaz. Bestalde, gehiago ere izango duzu hurrengo UK-n, baina momentuz ezin gehiagorik aurreratu...

Bestelako oparien esperoan...



AREETA, 2012KO AZAROA

**Ez egin laprast /** Tentuz ibili, margoak irrist egiten du-eta: Puntu Lila margotu dute Areetan, Bizkaiko Zubiko plazan, emakumeenganako indarkeria salatzeke eta Azaroaren 25aren (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna) bezperan. Puntu txikia izanagatik ez da txikikeria, ez gaia, ez barneratzen dituen eraso mota danak ere: bortxaketen, hilketen edota jipoi handien barri emoten da eta, sarri, uste izaten da horiek direla eraso bakarrak. Ostera, ez egin laprast! Eraso "txikiak" ere benetako eraso dira, eta horiek ere salatzeke datoz Azaroaren 25a zein Areetako Puntu Lila. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Abenduaren 3an da Euskararen Eguna, zelan ospatuko zenuke?



Leioa

**Jessica Araujo**

> Erizaina

Euskaltegian ikasten dut eta, beraz, bertara etorri eta zer edo zer antolatuko nuke bertan. Euskararen egoera hobetzeko, gainera, gehiago hitz egin behar nuke klasetik kanpora, baina oso zaila gertatzen zait: inguruan gaztelaniaz hitz egiten da eta aukera gutxi daukat praktikatzeko.



Leioa

**Ainhoa Maza**

> Erizaina

Txikitatik, ikastetxean euskaraz ikasi dut, baina unibertsitatean, gaztelaniaz egin nuen karrera eta jariatasuna galdu nuen. Ingurukoakaz ere gaztelaniaz egiten dut, euskara apur bat dakiten arren. Beraz, kontzientzia hartu behar nuke euskaraz hitz egiteko klasetik kanpora.



Leioa

**Iker Polo**

> Erizaina

Nire herrian hainbat ekimen egingo nituzke, adibidez: konzertuak euskaraz, argazki-lehiaketa euskal paisaiak eta pertsonak erakusteko, eta umeentzako jarduerak euskaldunak. Hau da, adin guztietarako ekimenak antolatuko nituzke, guztiok izateko aukera parte hartzeko.



Leioa

**Lourdes Gonzalez**

> Artxibozaina

Ekitaldi gehiago egin behar nuke euskararen Eguna iragartzeko, adibidez ikastetxeetan eta euskaltegieetan, pertsona askok ez daki-eta egun hori ospatzen dena. Egundorren barri emon behar nuke gehiago. Ekimenak antolatu ere, baina, batez ere, jakinarazi eguna zer den.



Gorliz

**Zaloa Bilbao**

> Idazkaria

Euskararen alde zer egingo nukeen? Bada, nire herrian ez da asko hitz egiten euskaraz eta, beraz, ekimenak antolatuko nituzte euskaraz hitz egiteko aukera gehiago emoteko jendeari. Umeentzako, adibidez, festatxoak egingo nuke eta nagusientzako triki-poteoa edo horrelako zer edo zer.



Bilbo

**Itziar Sinde**

> Euskara-irakaslea

Zer ospatu badaukagu, baina halere, zeregin handia daukagu oraindino euskara suspertzeko. Konpromisoa hartuz gero, aurrera bidean badaukagu zereginik. Ospakizunek irudimentsuak izan behar nuke, beti errepikatzen ditugulako antzekoak; baina beste bati galdetu behar nuke litzaiote zer.



## Iraganez doa denbora\* beti / MARIA KRISTINA PARKEA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; itxas-txoria



2012ko iraila

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)


Testua: **Beñat Vidal**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: ETAre su-etenetik

Portu zaharreko jaiak izan dute berriz kulpa, berriz bukatu bainuen neurrigabe mozkortuta. Bi pauso eman ezinik etxera ezin heldu (e)ta arranplan lokartu nintzen nolabait ezkutatuta. Esnatu edo egin naiz begi t'erdia zabaldua eta ikusten dudana nago ezin sinistuta; itsas-txori gaupasero bat ni neu bezain galduta!

Hogeita bi garagardo ta lau gintonic kolkoan normala da amaitzea amaitu dudak txokoa. Txoriak ere antzera bukatu ote ondoan? Ur-azaleko brillodun zer hori sartu mokoan eta edan baldin badu ezin urrutira joan, botila (e)ta brikkak begiz joko zituen atoa eta hor lo egin ote du kabia zelakoan?

Esan diot: "Mekauen zotz, adi entzun txori hori: nik ez dut kontatuko (e)ta zuk ez kontatu inori! Arropak, lumak txukundu goazen gosaltzera ongi; kafesnea corissant bat bueno, ez ez hobeto bi. Lurrera erortzen diren apurak zuretzat tori." Indarberrituta guztiz lehen geundenak erdi grogi, ni errege sentitzen naiz eta bera kalatxori!

Fede Merino. Info+: [www.abfoto.org](http://www.abfoto.org)argazki-liburua > *Getxo. 1973/1998*

**Fede Merino** (Reinosa, Kantabria, 1943) argazkilariak *Getxo. 1973/1998 Eguneroko bizitzaren noblezia* liburua aurkeztuko du Tamarises jatetxean (Ereaga kaia, 4) abenduaren 11n, 20:00etan. 25 urteko bitarte horretako gitxi gorabehera 120 argazki batu ditu liburuan aspaldi Berangon bizi den argazkilariak. Eguneroko egiteko eta jardunetan dabilzan "jende ezezaguna"-ren, herriko aurpegi

ezagunen bizitzaren "noblezia" jaso du; "iraganaren, herri-memoriaren lekukotza uztea oso garrantzitsua" delako berarentzat. Merinok ateratakoak dira argazki danak eta liburua 20 euroan egongo da salgai hurrengo guneetan: Tamarises jatetxea, Foto Ricardo (Algorta eta Areeta), Itxas-Ikus liburudenda, Egunkariak, Satistegi kafetegia, Tangora taberna, Taberna Berri eta Nagusien Etxea (Berango). ○

## irakurzaleen txokoa &gt; Harkaitz Zubiri

**Uribe Kostako** Irakurzaleen Txokora Harkaitz Zubiri idazlea gonbidatu dute oraingoan. Abenduaren 20an, eguna, 20:00etan Aldai Patronatuan ipini dute hitzordua eta idazle donostiarraren *Etxekalde* (2012, Susa) nobela izango dute berabagai, besteak beste. "...Anaitasuna enpresa ez dabil ondo. Kontuak zehazki nola dauden inork ez daki, baina arazoak eta zurrumurruak zabaldu direnez gero, lo-

rrintzen ari dira langileen arteko harremanak...", hala dio liburuaren azalak. "Bizitza gurutzatuak kontatzen ditu Harkaitz Zubiriren nobelak. Krisi ekonomiko eta sozial garaian krisi pertsonal eta intimoetan trabatua direnek ihes egin nahi diote porrot gordinari, kosta ahala kosta", hori da lanaren muina, baina, esan barik doa, hobe dela hitzordua baino lehen nobela irakurtzea; denbora baduzue-eta!! ○

Info+: [www.egizu.org](http://www.egizu.org)

Aurkezpen eguneko irudia

## hekimen &gt; euskal hedabideen elkarteak

**Bi urteko** prozesuaren ostean, euskarazko hedabideen sektoreko 50 eragilek Hekimen, Euskal Hedabideen Elkarteak sortu dute. Euskara hutsezko hedabideen arteko elkarlana bideratzea, eta kanpoko eragileen aurrean solaskidetza bateratua erortea ditu helburuen artean, euskal komunikazio esparrua indartzeko asmoz. Besteak beste, hauek osatzen dute: Aizu!, Argia, Berria, Elhuyar, Euskal Irratiak, Gaztezu-

lo, Irria, Hamaika Telebista, Jakin, Sustatu, Kazeta.info-Gaur 8 eta Tokikom (horreren kide: 28 Kanala, Aikor, Aiurri, Anboto, Aiaraldea.com, Antxeta Irratia, Baileike, Barren, Bierrik, Bilbo Hiria Irratia, Berton+Prest, Erlo Telebista, Euskalerria Irratia, Goiena, Hernaniko Kronika, Hirinet, Karkara, Noau!, Pil-pilean, Txintxarri, Tipi-Ttapa, UK, Ukberri.net, Uztartia, Xaloe Telebista, Zuzeu e.a.). ○

**Zure neurriko EGUTEGIAK 2013**

**cianoplan** GLOBAL PRINTERS

[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)

**saiazgetaria** HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria ...lehenago garaiak... ...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

# B A D A T O R




## Hamaika aukera euskaraz bizitzeko eta Gabonak Getxon gozatzeko

Olentzero kalejirak, Gabonak ludotekan eta gaztelekuan, Gabonak Kultur Etxeetan, Txan magoa, kale animazioa, Getxolandia, Izotz pista...

Informazioa: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea • Itxas Argia dantza taldea • Berantzagi dantza taldea • Zasi Eskola dantza taldea  
Gobela ikastolako Txatxalin gurasoen elkarte • Neguriko Gobela taldea



“Nik poz handia hartu nuen lehenengo bertsoa ulertzean”

## Matias Barreiro > Euskaraz bizi gura dut!

**Nor-nori-nork** aditz taula, berridazketak edo esaera zaharrak ez zaizkio arrotzak egiten Matias Barreiro gazteari. Orain 26 urte Argentinako Rosario hirian jaioa, Barreirok hiru urte daroa Algortan bizitzen, Romoko neska batek erakarri ostean: “2006. urtean Iguazuko ur-jauzietan nire egungo emaztea ezagutu nuen. Maitemindu ginen, eta hiru urte elkarrekin egon eta gero, hona etorri nintzen bizitzera”. Euskal Herriko paisaiak lehenengoz ikustean harrিতuta lotu zen: “Lehenengo inpresioa oso ona izan zen... beno, eta bigarrena ere bai, kar-kar!”. Baina paisaia ez zen izan Barreiro harritu zuen gauza bakarra. Euskarak ere laster piztu zuen bere arreta: “Jakin-minak bultzatu ninduen euskara ikastera”. Gabriel Aresti euskaltegian lehenengo urratsak egin, eta Algortako Lauaxeta euskaltegian jarraitu zuen. Aditzak? Hiztegia? Zer izan zen gaitzena? “Dan-dana! Bakarrik nekien esaten ‘kaixo’, ‘agur’ eta ‘eskerrik asko’, eta eskolak euskaraz ematen ziren... piperrik ez nuen ulertzen!”. Baina ezina, ekinez egina! Egun, Matiasek euskaraz egiten du berba; hori bai, argentinaz azentua galdu barik, noski! “Bakoitzak bere motibazioa bilatu behar du, horrek bultzatuko zaitu ikastera. Nik, poz handia hartu nuen lehenengo bertsoa ulertzean”. Klasetik kanpo euskaraz berba egitea da berarentzat gakoa: “Hasieran lotsatuta, eta oraindino apur bat... baina ahaleginak egin behar, bestela!”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# Gutizia txikiak guztion eskura

**Pintxoakaz lotutako egitasmo bi datoz: batetik, Romon Pintxo Potea abiatu du hainbat tabernak, eguenetan; bestetik, GetxONegin pintxo-lehiaketa izango da abenduaren 15 eta 16an**

Getxok badauka maila tamaina txikiko sukaldaritzan. Horren lekuko dira ekimen bi, bata barria, bestea errotua. Ekimen barria da Romoko Pintxo Potea: eguen guztietan egingo dute eta 21 tabernak parte hartuko du. Bestalde, abenduaren 15ean eta 16an izango da GetxONegin pintxo-lehiaketa eta herri osoko 44 tabernak eta jatetxek parte hartuko du, ostalaritza eta euskara sustatu asmoz.

**Potea ia herri-kirola** bada ere gurean, nabaritzen hasi ei da krisi ospetsua eremu horretan ere. Irudimena bizkortu behar eta bezeroak erakartzeko ideia barriak pentsatzen hasi dira tabernariak, Romokoak kasu: Pintxo Potea abiatu barri dute Udalararen laguntzagaz eta 21 tabernak parte hartzen du. Ekimenagaz, gainera, auzoko bizitza suspertu gura dute antolatzaileek.

Horrela, pintxo eta potea merkeago izango da eguen arrastietan: mokadutxo urteko ardoagaz edo zuritoagaz hartuz gero 1,80 euro ordaintzen da eta, ardo onduagaz hartuz gero 2,10 euro. Esatea jaieguna egokituz gero bezperan antolatu-koladutela Pintxo Potea.

Plan polita da, baina ez da horretara mugatuko, bezeroen artean zozketa ere prestatu dute-eta: Hacienda Lopez de Haro upategira bisita izango da saria eta taberna bakoitzeko irabazle bana egongo da. Martxoaren lehen aste akabuan egingo dute eta sarituen zerranda kaleratuko dute egun batzuk beranduago, hilaren 7an.



Iaz Malakate tabernako pintxoak irabazi zuen epaimahaiaren saria GetxONegin lehiaketan

Eta ekimena ondo hasteko, zer hoba beste lehiaketa batez batera gertatzea baino? GetxONegin pintxo-lehiaketari buruz ari gara, abenduaren 15ean eta 16an egingo da-eta, laugarrenez, eta ondoko lemagaz: *“A ze bikotea, pintxo eta potea!”*.

**“Pintxo eta potea 1,80 euro kobratuko dute eta ardo onduagaz 2,10 euro”**

Ekimenaren helburu nagusia da euskara eta herriko ostalaritza bultzatzea eta uztartzea, Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez: *“Bezeroak euskaraz eskatzen animatu gura ditugu, eta ostalariak euskarara hurbildu. Aurten iaz baino establezimendu gehiagok eman du izena”*. Horrela, Getxoko 44 tabernak eta jatetxek parte

hartuko du eta herriko auzo eta zonalde guztietan.

Lehiaketarako pintxo euro batean salduko dute eta epaimahaiakideak tabernetara joango dira, pintxoak baloratzea eta establezimenduaren hizkuntza-paisaia aztertzea. Hiru sari emongo dute: epaimahaiarena, bezeroena eta hizkuntza-paisaia txukunena duenari. Gainera, aipamen berezi bi egingo dute: Eusko Label produktuak egindako pintxo onenari eta pintxo tradizional gozoenari.

Baina bezeroek ere parte hartuko dute lehiaketa honetan: pintxoak baloratzeaz gain, euskaraz hitz ederren bat idazteko aukera izango dute, boto-txartelean edo SMS bitartez. Hitzik onenak idazten dituzten artean hainbat sari zozketatuko dute. Horrenbestez, on egin deizula! o

## San Nikolas Ikastolari

emon diote Argia Ereiten Euskara saria



Aurten 50. urteurrena ospatzen ari da Algortako Ikastola

**50 urte bete du** aurten Algortako San Nikolas Ikastolak eta ospakizunetan murgilduta dabil. Urteurrena biribiltzeko, gainera, Argia Ereiten Euskara saria emon dio Getxoko Udalak. Euskararen erabilera babestu, sustatu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren erakunde, elkarte edo pertsona fisiko nahiz juridikoak gorapatzeko helburua dauka sariak.

Ikastolak *“herrian euskararen irakaskuntzan, normalkuntzan eta hedatzean hainbeste urtetan egindako ekarpena”* nabarmendu du Udalak, sariaren hirugarren edizio honetan; Luis Artolak landutako egurrezko ikurra jaso zuten ikastolako lagunek azaroaren 28ko ekitaldian.

1963an abiatu zuten ikastola bederatzia familiaren etxeetan. Orduetik hainbat kokapen izan du, ikasleen kopurua hazte-

agaz batera; gaur egun Areneazpi kalean dago eta eskaintzen du Haur Hezkuntzatik DBHraino. Baina, heziketa akademiko horretaz gain, ikasleen heziketa integrala lortzeko erronka izan du beti ikastolak: *“euskara eta euskal kultura zabaltzea; inguruko obiturei begirunea erakusten dieten gizaki sortzaile, arduratsu eta profesionalak beztea; aurrerapen teknologikoak txertatzea eta kirola bultzatzea e.a.”*.

Euskara sarirako hautatze prozesuan, hautagaiak aurkez ditzakete euskalgintzako elkarteek, euskaltegiek, ikastetxeek, banakoek edo Euskara Zerbitzuak, eta epaimahaiak erabakitzen du nor saritu. Epaimahai hori osatzen dute, hain zuzen ere, alkateak, Euskara zinegotziak, euskararen Aholku Batzordeko kideek eta Euskara Zerbitzuko teknikari batek. o

### ELKARTE BARRIA DAUKATE BOLUNTARIOEK

Sarekide sortu barri da, Getxoko 17 boluntariotza-erakunde elkarte; Fegevol federazioaren antolakuntza-aldaketan ostean heldu da Sarekide, boluntariotza sustatzeko eta partaidetza eran lan egiteko helburuagaz. Lehen ekimena izan ditu Boluntariotza Topaketak: abenduaren 3an egin zituen Faduran. Gainera, webgunea abiatu du: [www.sarekide.org](http://www.sarekide.org).

### ITZUBALTZETAKO EMAKUME BI EPAITUKO DITUZTE HILAREN 13AN

Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladako kide bi epaituko dituzte Getxon abenduaren 13an, *“Haitzama musika taldeko Miguel Maria Leibarrek salaketa jarri”* zielako. Algortako Bilgune Feministak babesa eskaini die emakumei. Ohar batean dioenez, Leibarrek *“injuriak eta kalumniak leporatzen”* dizkie *“eraso sexista baten salaketa publikoa egiteagatik: Mikel bere bikotekide ohia jipoiu izanagatik salatu zuten 2012ko ekainean”*. Bilgune Feministak ez du onartuko *“eraso sexistarik, ezta mugimendu feministaren aurkako erasorik ere: kokoteraino gaude ekintzak justifikatu beharraz; eraso sexistak salatzea denon ardura da eta ez dago eskubiderik horregatik kriminalizatuak izateko”*. Abenduaren 12an manifestazioa egingo dute Romon eta 13an kontzentrazioa Getxoko epaitegi aurrean.

### EPAIKETA PRESOEN ARGAZKIAK DIRELA-ETA

Bilduk mozia aurkeztu du azaroko Osoko Bilkuran, romotar biri elkartasuna adierazteko. Izan ere, Abenduaren 10ean epaituko dituzte Espainiako Auzitegi Nasionalean, terrorismoa goratzea delitua egotzita: 2011ko jaietako liburuxkan auzoko preso argazkiak zeuzkan iragarkia argitaratu zuen, ohi legez, Branka Kultur Elkarteak. Ondorioz, elkarte eta Jai-Batzordeko presidentek epaituko dituzte Madril eta 18na hilabeteko espetxe-zigorra eskatu du fiskalak eurentzat.



Abenduaren 15era arte  
bigarren jantzia erdi-prezioan

Ibaiondo 7 - 48930 Erromo (Getxo) - Tf. 94 656 21 57



**Janire Lucas Olea** > 'Ulertuz' ume gorren familien elkarteko koordinatzailea

“Kontzientzia handiagoa, baina entzumen-galera urritasun ikusgaitza da oraindino”



Info+: [www.ulertuz.org](http://www.ulertuz.org)

**Bizkaiko Ume Gorren Familia eta Lagunen Elkartea da Ulertuz eta, iragan azaroaren 17an, entzumen galtzeari buruzko sentsibilizazio jardunaldia egin zuen Algortan: “Seme-alabaren entzumen galtzea: eskarmentutik gerturatzea”. 1999an sortu zen Ulertuz, urritasun hori daukaten umei eta beren familiei laguntzeko dauden hutsuneak bete asmoz. Informazioa, orientazioa, arreta eta aholkularitza eskaintzen diete, baita arreta psikologikoa, orientabide pedagogikoa, eta diagnosi zein logopedia zerbitzuak ere. Janire Lucas Olea dute koordinatzaile.**

—Sentsibilizazio-jardunaldia egin duzue Algortan, zein helburuz?

—Asmoa zen getxoztarrei eta interesa zutenen transmititzea familia batzuen bizipenak; entzumen-galera daukaten umeak daukaten familiak dira. Bi gune egin genuen: alde batetik nagusiak eta, bestetik, umeak. Nagusiei aurkeztu genien elkar-eta azaldu genien entzumen-galtzearen hainbat alderdi. Familien mahaingurua ere egin genuen, entzumen-galera daukan ume bat izateak egunerokoan daukan eragina erakusteko: maila emo-

zionalean, osasun-mailan, administrazio-tramiteetarako, hezkuntza-mailan, e.a. Hau da, familiei hitza emon gura diegu.

—Gure jendartea prestatuta dago urritasun honi aurre egiteko?

—Horrelakoen bitartez gero eta kontzientzia handiagoa dago, baina entzumen-galera urritasun ikusgaitza da: ume bat ikuste-agaz bakarrik ez da antzematen. Beraz, sentsibilizazio lan handia dago egiteke. Horretan gabilta Ulertuz elkarteak eta eskolatan ere egiten dugu sentsibilizazioa, egoeraren barri izan dezaten. Ikusten da kon-

tzientzia handiagoa dagoela gaiarekiko, baina oraindino lan handia egin behar da. Gure elkartean 113 familia dira bazkide, baina 440tik gora lagun dira zuzeneko onuradunak. Beste hainbat pertsona ere badago urritasun bardinagaz Bizkaian, bai-

### «Sentsibilizazioa lantzen dugu eskolatan ere, Garatu programagaz»

na ez dira Ulertuz gure elkarteko bazkide. —Eskolan entzumen-galera daukaten umeak gainontzeko ikasleakaz daude klasean; prestaketa-lanik egiten duzue ikasle eta irakasleakaz?

—Bai, Garatu programaren bitartez ume-agaz harremana daukaten pertsona guztiak egoten gara eskolan, ez bakarrik irakasleakaz: jantokiko langileakaz, eskolaz kanpoko jardueretakoakaz, e.a. Kontuan izan beharreko hainbat gauza lantzen dugu: ikasgelan non eseri behar duen umeak, ez hitz egitea arbelan idatzi bitartean e.a. Ulertuz-eko logopedia eta arreta goiztiarreko arduradunak garatzen du lan hori. Baina ez da beti sasoi berean egiten, eskolatik eskatzen digutenaren arabera baizik: batzuetan eskatzen digute umea haur-hezkuntzan dagoenean, baina zikloz aldatzean itzul gaitezke, irakasle barriakaz egoteko. Gainera, beharrak eta egoerak aldatuz doaz adinagaz.

—Umearen entzumen-galera zahartu eta zer bide jarrai dezakete gurasoek?

—Beti ez dira oharitzen adin beragaz; guk laguntza eta orientazioa emoten diegu hainbat arlotan, normala denez, nahasita datozelako. Asko logopedia zerbitzuagatik dator, zerbitzu garrantzitsua da-eta. Gainera, saiatzeko gara egoera berean daukan beste umeak ezagut ditzaten eta beren ingurukoak ere etor daitezten. ○

## Ahobien gala eta sariak

### ALBEren gala izango da hilaren 9an eta bertan banatuko dituzte Ahobi sariak



Bertso-trama ere egingo dute ekitaldian

**ALBEren**, Algortako Bertso Eskolaren gala iritsi da: urteari merezitako amaiera emoteko ekitaldia. Faturako areto nagusia izango da abenduaren 9an, domekan, arrastiko 18:00etan. Aurkezle-lana egingo dute Arrate Illaro eta Itxaso Paia bertsolariek.

Aurten bertso-trama prestatu dute ALBEko lagunak eta kantuan ipiniko dituzte hainbat bertsolari, istorioari segitzeko saiakeran: Jone Uria eta Xabi Paya algortarrak, baita Andoni Egaña eta Jon Maia ere. Laurei gaiak proposatuko dizkie Josu Goikoetxea gai-jartzaileak.

Ekitaldian, gainera, urteko bertso-

saioei buruzko argazki-emanaldia izango da eta bertso-eskolako umeek antzerkia egingo dute, bertsokaz. Baina ez hori bakarrik: aurten Ahobi sariak ere banatuko dituzte ekitaldiaren barruan.

Bi urtean behin emoten dituzte sariok, bertsolaritzaz besteko arlo jakin batean “bertsolaritza sustatzen eta indartzen duten pertsonen eskerrak emon guran”. Oraingoan ikus-entzunezkoen arloa hautatu dute horretarako eta, behin bertsolaritzari buruzko lanen azterketa eginda, hainbat sari banatuko du ALBEk. Ekitaldia amaitutakoan, gainera, mokadutxoak jateko aukera izango da. ○

### ARGIHIZKIAK IKUSGAI ALGORTAKO AZOKAN

Abenduan ere aukera daukazu Argihizkiak erakusteko, Algortako azokan. Getxoko 15 argazkilariren irudiei hitzak ipini dizkiete lehiaketa honetan: horietatik 15 SMS eta beste horrenbeste testu labur aukeratu dituzte argazkiakaz erakusteko. Egizuk, Euskara Zerbitzuak, Getxophotok eta UK aldizkariak antolatu dugu ekimena.

### SHOW COOKING EDO ARDOA LAGUN, FADURAN

Euskal Kulturaren Jardunaldien baitan kokatzen da *Show Cooking*. Ekimen honetan, Josemi Olazabalaga Aizian jatetxeko sukaldariburuak lau pintxo egiten erakutsiko du eta, bitartean, Mikel Garaizabal enologoak azalduko du bakoitzagaz edateko ardorik aproposena zein den. Abenduaren 13an izango da saioa, 19:00etan, Faturako Ostalaritza Eskolan. Daborduko izena emon daiteke.

Parte hartzeko: 94 466 00 10 (goizez)

### MAYAK HIZPIDE MUSIKA ESKOLAN, HILAREN 8AN

Lagun Artean GKE-k dokumental emanaldia eta mahaingurua antolatu du abenduaren 8rako. Maya kultura izango du hizpide ekimenak eta ondokoa eskainiko duten filma: *Mayan Renaissance* (Mayen berpizkundea). Areetako Andres Isasi Musika Eskolan izango da, 19:00etan eta doan. Biharamunean, barriz, erakusteko ipiniko dute Areetako Geltokia plazako Getxotik Mundura karpan.

### LAURITA SILESEN MARRAZKIAK ALGORTAN

Abenduaren 19tik urtarrilaren 4ra ikusi ahaliko dira Laurita Silesen marrazkiak Villamonteko kultur etxean. Aste barruan goiz eta arrastiz zabalduko dute aretoa, 11:00-14:00 eta 18:00-21:30 bitartean; zapatuetan, barriz, 10:00etatik 13:00etara.

Info+: [folklorenomada.com](http://folklorenomada.com)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Nagore Bilbao Aizpuru** > Atalaia Claret aterpetxeko Komunikazio arduraduna

“Aterpetxea taldeei zuzenduta dago: kirol, kultur edota elkarte sozialei, baita ikasle eta enpresei ere”

**Gazte-aterpetxea zabaldu barri dute Klaretar Misiolariak Leioan, Askartza eskolaren aldamenean: Atalaia Claret da haren izena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren sarearen barruan dago. Bertako Komunikazio-arduraduna da Nagore Bilbao Aizpuru.**

—Nori zuzenduta dago Atalaia Claret?  
—Aterpetxea taldeei zuzenduta dago: kirol-elkarte eta federazioak, kristau-taldeak, musika eta antzerki taldeak, talde sozialak eta kultur arlokoak. Bilera gelak dauzkagu prestatuta formazio mintegiak eta bilkurak egiteko, adibidez, enpresen edo elkarten erabilpenerako. Gitxienez 10 lagunentzako tokia hartu behar da.  
—Nondik dator ideia aterpetxea egiteko; zelan sortu zen proiektua?

—Esperientzia piloto batetik dator. Hauxe apaiztegia izan zen 1975etik 1991ra. Bestalde, Askartza Claret konplexuaren barruan kirol-instalazioak ere badauzkagu eta bertan hasi ziren egiten txapelketa eta jardura asko; ondorioz, kirol-taldeak baimena eskatzen hasi ziren apaiztxean lotan geratzeko txapelketak egin bitartean. Baina Klaretar Misiolarien elkarte txikia da eta ez zeukaten astirik hori behar bezala kudeatzeko. Beraz,



Azaroaren 22an inauguratu zuten Klaretar Misiolarien gazte-aterpetxea

duela 7 bat urte itxi zuten eta, 2008 inguruan, aztertzen hasi ziren lehengo publiko hura eta interesa mantentzen ote zen merkatuan. Baiezkoa ikusi ostean, barritze-lanak egiten hasi ziren eta orain inaugurazio ofiziala egin dugu.  
—Zer asmo daukatzue aterpetxeagaz?  
—Gazteekiko eta kirolarekiko harreman zuzena garatu gura dute Klaretarrek. Gainera, Hego Amerikan misioak daukate klaretarrek eta, hortaz, horiekiko

laguntza ere bideratuko du aterpetxeak.  
—Zelakoa da Atalaia Claret?  
—Prestatuta dago 153 lagun hartzeko: 67 logela dauka, gehienak bikoitzak, baina batzuk badira hirukoitzak edo lau-koitzak ere. Izatez, eraikin modernoa da eta hotela emoten du: prestatuta dago enpresa edo hezkuntza mundutik datozen lagunak hartzeko. Gela komunak ere badauzka entretenimendurako zein bile-  
rak egiteko; eta jatetxea ere bai. ○

## Baserria eta ortua kalera!

Nekazaritza eta abeltzaintza azoka izango da erdialdean **abenduaren 16an**, domekan



Postuak ipiniko dituzte Bulebarrean, eta J.R. Aketxe eta Errekalde plazetan

**25 urte bete du** Leioako Nekazaritza eta abeltzaintza azokak aurten: abenduaren 16an egingo da, domekan, Bulebarren, eta Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazetan, 10:00etatik 15:00etara.

Urtero legez, hamaika produktu dastatu eta erosi ahalko dira: barazkiak, txarrikiak, pastelak, gazta, eztiak, ardoa, txakolina e.a. Abeltzaintza alorrean, abere-erakusketa izango da: Bulebarren behiak eta idiak, eta Errekalde plazan zaldiak, ahuntzak eta hegaztiak, baita lehiaketak eta bestelako ekimenak ere.

Eguerdiko 11:00etan, Gure Ohiturak dantza taldearen emanaldia izango da; 12:00etan, barriz, harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute (Izeta III/Urko-

Urrutia/Urpe, 125 kiloko harri zilindrikoagaz), Nagusien Etxeko abesbatzak kantatuko du Bulebarren, eta txarri errea eta sagardo dastatzea izango da J.R. Aketxe plazan; 13:00etan, azokako behi eta idi arrazei buruzko azalpenak eskainiko dituzte eta, 14:00etan, sariak banatuko dituzte: batetik, Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendazioaren Bizkaitar Produktoreentzako XIV. Lehiaketakoak eta, bestetik, postuen eta partaideen girotze-lehiaketakoak.

Gainera, ekintzak prestatu dituzte: idi-gurdian eta ponian paseoak eta umeentzako tailerrak. Bitartean, goiz osoan azoka alaituko dute trikitilariak eta txistulariak. Ondo pasa! ○

### GORAKADA TALDEAREN TXOTXONGILOAK

25 urte bete du Gorakada antzerki taldeak aurten eta, horregatik, bere antzezlanetan erabilitako txotxongioloak erakutsiko ditu Kultur Leioan. Erakusketa abenduaren 13tik urtarrilaren 27ra bitartean izango da. 1987an sortu zuen Gorakada hainbat gaztek Durangon. Umeentzako antzerkia landu gura zuten, eta horregatik ikasi zuten txotxongioloak egiten eta erabiltzen. Txotxongioloak batera aritzen dira aktoreak taula gainean eta, sorreatik, lotu barik dabilta. Kultur Leioan ikusi ahalko duzu urteotako uzta ederra. Gozatu.

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

### AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK GURA DITU BILDUK 2013-RAKO

Datorren urteko udal-aurrekontuak egiteko herritarren nahiak eta beharrak jakin gura dituela jakinarazi du Udaleko Bildu alderdiak eta, horretarako, azaroan bilerak egin ditu auzoz auzo eta gaiz gai, herritarrek zein elkarteak. Beraien kezkek eta ekarpenak jaso ostean, datorren abenduaren 19an aurkeztuko du Bilduk 2013ko udal-aurrekontuetarako bere proposamena, Errekalde plazako Nagusien Etxean, 19:00etan. Gainera, internet bitartez ere helarazi ahal zaizkio ekarpenak Bilduri: [bildu.leioa@gmail.com](mailto:bildu.leioa@gmail.com) helbidera.

Info+: [www.facebook.com/bildu.leioa](http://www.facebook.com/bildu.leioa)

### GAU FLAMENKOA ABENDUAREN 21EAN

Hamaika estilo erakusten dituen musika zikloaren barruan, Gau Flamenkoa prestatu dute abenduaren 21erako. Kultur Leioan arituko dira Raul Mico eta Las Migas musika taldeak. Gaueko 21:00etan hasiko da emanaldia eta sarrera 20 euro ordaindu behar da. Gogoratu denboraldi osoko kontzertuen bonoak 60 euro balio duela eta Kultur Leioako lagunentzako bonoak 50 euro. Has zaitezke txaloak emoten eta gorputza mugitzen.


**MR TALLER MECANICO**  
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas  
Mota guztielako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Soinua...  
Tf. 94 430 17 81  
Bidezabal Kalea 9  
48993 GEIXO

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Alfonso Vallejo** > Tartanga Ikastetxeko Irudia eta Soinua saileko arduraduna

## “Animazioaren eremu guztiak irakasten ditugu: marrazki klasikoetatik 3D-ko animazio digitalera”

‘3D animazioa, jokoak eta ingurune interaktiboak’ Heziketa Zikloa abiatu dute Tartanga Ikastetxean; leku oso gitxitan eskaintzen da. Irudia eta Soinua saileko arduradun Alfonso Vallejok emon digu haren barri.

—Ziklo barria abiatu duzue 3D animazioak egiten ikasteko.

—Hezkuntza sailak eskaintza barri hau egin zuen eta ikastetxean ahalik eta lasterren txertatzea erabaki genuen, Irudia eta Soinua saileko hezkuntza eskaintza eguneratzeagaz batera. Gasteizko Hezkuntza sailak babestu zuen gure erabakia. Estatu mailako beste ikastetxe bitan eskaintzen da ziklo hau. Ez genuen publikitate edo promozio handirik egin, ez genekielako zelan joango zen kontua. Hala ere, berehala bete ziren tokiak. Gaztelaniaz eta ingelesez emoten da: duela bospasei urte hasi ginen ingelesa txertatzen zikloetan.

—Zelako soslaiak daukate ikasleek?

—Batzuk batxilergotik datoz. Beste asko daborduko beste zikloren bat eginda datoz, unibertsitatetik ere bai. Azken aldian maiz gertatzen da: lanik ez eta ikasten jarraitu behar, karrera bat eginda badaude ere. Eta ikasleen laurdena edo, emakumeak dira. Beraz, soslaiak askotarikoak da.



Info+: [www.tartanga.hezkuntza.net](http://www.tartanga.hezkuntza.net)

Hogei laguntzako lekua daukagu.

—Hezkuntza aldetik, zelakoa da zikloa?

—Irakasgaiak askotarikoak dira, osotuak eta konplexuak. Animazioaren eremu danak irakasten ditugu: hasten gara marrazki klasikoak, Walt Disneyren estilokoak, ondoren egiten dugu bi dimentsioko animazio digitala eta, azkenik, hiru dimentsiokoak. Plastilina ere egiten ditugu gauzak. Ikuspegi orokorra emoten dugu, ez sakona, baina bai oinarritzko ezagutzak eskaintzeko, urte bi bes-

terik ez dugu-eta. Gainera, multimedia eta bideojokoaren eremuak lantzen ditugu; azken horretan entretenimendurako jolasak egiten irakasten dugu, baita zerbitzuei bideratutako simulazioak ere. Irakasleen artean profesional bi daukagu eta azoketan parte hartzen hasi gara oraintsu: argi dugu zikloa urte bi besterik ez direla, oinarrizko ezagutzak eskainiko ditugula eta ondoren garatuko dutela ikasitakoa: harremanak egin behar ditugu industriaren eremuagaz. ○

## Lirikoa eta klasikoa

Abenduaren **15ean kontzertu lirikoa** izango da eta, **17tik 19ra, Gabonetako kontzertuak**



Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net) guneko agendan

**Urte amaiera** musika doinuek bustitadator Erandioko agenda, izan ere, ekimen bi prestatu dituzte: batetik, euskal kantu liriko barrien kontzertua eta, bestetik, Erandioko Musika Eskolaren Gabonetako kontzertuak.

Abenduaren 15ean izango da lehena, euskal kontzertu lirikoa, Astrabuduko kultur etxean. Marta Velasco Urkiak (mezzosopranoa) eta Irantzu Bartolomek (sopranoa) kantatuko dute; pianoan lagunduko ditu Juan Jose Ortegak. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera bakoitza 3 euro ordaindu behar da; kontzertua baino hamar egun lehenago salgai ipiniko

dituzte kultur etxean bertan, baita udal-etxean ere, Kultura sailaren bulegoan.

Bestalde, urtero legez, Gabonetako kontzertuak eskainiko dituzte Musika Eskolako ikasleek abenduaren erdialdean, hain zuzen ere, 17tik 19ra bitartean. Lau emanaldi egingo dute hiru egunetan: hilaren 17an, astelehena, Astrabuduko kultur etxeko Areto Nagusian arituko dira 19:30etik aurrera; martitzena 18an, barriz, saio bi egingo dute, bata Erandiogoikoako San Jose egoitzan eta bestea Astrabuduko kultur etxean, biak 19:30ean; azkenik, eguaztena 19an Altzagako San Agustin elizan izango da emanaldia 20:00etan. ○

## LAGUNTZAK EUSKARAZ ERROTULATZEKO

Erandioko merkatariak diru-laguntza eskatzea daukate errotuluak euskaraz ipintzeko: dendaren errotulu barriagatik edo aldatzeagatik, euskara hutsean egonez gero, %50eko laguntza jaso lezake, gehienez ere 500 euro. Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz ipini nahi izanez gero, barriz, %25erainoko laguntza jaso lezake, gehienez ere 300 euro. Ekimenaren barruan sartzen dira toloetako eta ibilgailuetako errotuluak ere. Eskatera Udalean aurkeztu behar da, ondoko agiriakaz batera: errotuluaren testua eta argazkia, gastuaren faktura originala eta kontu korronte zenbakia. Euskara Zerbitzuak bere oniritzia emon behar du.

Info+: [erandiokoeuskarazerbitzua.com](http://erandiokoeuskarazerbitzua.com)

## KUKULARRAN ETA ARRIAGAN ARGIZTAPENA BARRITUKO DUTE

Arriaga eta Kukularra auzoetako argiztapena hobetzeko egitasmoa egin du Udalak. Horrela, aginte-guneko 56 aparatuek ordezkatuko dituzte led teknologiadun beste gailu batzuegatik. Zehazki, Kukularran 31 bide-argi eta 25 horma-proiektagailu barrituko dute, horretarako 33.054 euro inbertituz. Arriagan, barriz, 52 gailu barrituko dute. Ondorioz, *Iridium* argiak ipiniko dituzte, horretarako 28.133 euro inbertituz.

## NAZIOARTEKO XAKE-TXAPELKETA IREKIA ASTRABUDUAN

Urte amaieran jokatu da Nazioarteko XXI. Xake-Txapelketa Irekia, hain zuzen ere, abenduaren 22tik 30era bitartean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean egingo dira saio guztiak eta Sociedad Polideportiva Erandiok antolatuko du. Izen-emoteei, arauari, sariai eta, orokorrean, txapelketari buruzko informazio gehiago topatuko duzu ondoko webgunean: [telefonica.net/web.sperandio/open12](http://telefonica.net/web.sperandio/open12).



Luberrri Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberrri@euskalnet.net](mailto:luberrri@euskalnet.net)  
[www.luberrri.biz](http://www.luberrri.biz)

### - Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

### - Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

### - Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

### - Barrukaldeak lorategi bihurtzea



# adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia\* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

\*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

## EKITALDIA HERRIKO NAGUSIEN OMENEZ

Urtero legez, Lagun Artea elkarteak herriko hainbat nagusien omenez jaitxo prestatu du Nagusien Etxean. Aurtengo hitzordua abenduaren 14an izango da, barikua, 17:30etik aurrera, eta sei lagun omenduko dituzte. Horretaz gain, briska, tute, mus eta igel lehiaketen txapeldunak ere sarituko dituzte, askari eta dantzaldietarako tartea ere izango dute.

## GABONETAKO KOLONIA IREKIAK, EMON IZENA!

Ume sopoloztarren artean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, Gabonetako udaleku irekiak antolatu ditu Udalak. Abenduaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an; bertan umek tailerrak, eskulanak, jolasak, kantak e.a. egingo dituzte, irudimena eta sormena landuz. Izena emateko epea abenduaren 14an amaituko da, 40 euroan.

## ERREGE KABALGATAN PARTE HARTU GURA?

Errege bezperako gauean, hots, urtarrilaren 5ean, kabalgata antolatuko du Sopelako Kultur Etxeak. Kalejira eta antzerkian parte hartu gura baduzu, horretarako aukera izango dugu. Honako helbidera zure datuak (izen-abizenak, telefono zenbakia eta adina) bidali beharko dituzu: [kultura@sopelana.net](mailto:kultura@sopelana.net).

## MULLIR MENDIRA URTEERA ANTOLATU DUTE

Hilero legez, mendi-txangoa prestatu dute Munarrikolanda Mendi Taldeko lagunek. Abenduko hilaren 16an izango da, eta Kantabriako Mullir mendia (846m) igoko dute. Ogarrio-tik egingo dute igoera, eta La Secadura-n amaitu. Txangoan parte hartu gura dutenek [www.munarri.com](http://www.munarri.com) helbidearen bidez izena emon dezakete. Ondo pasa!

## Istripuak ekidin guran

Larrabasterrako errepide nagusian **segurtasun neurriak** hartzea eskatu dio Udalak Aldundiari



Hainbat istripu izan da Larrabasterrako BI-634 foru-errepidean

**Azken** urteetan hainbat istripu gertatu da Larrabasterrako BI-634 foru errepidean. Irailaren 18an, barbarako, oinezko batek bizia galdu zuen Karmen elizaren aurrean dagoen zebra-bidean, auto batek harrapatu ostean.

Errepide honen segurtasun faltak Larrabasterrako auzokideen artean ezin-gona sortu duenez, Sopelako udalbatzak segurtasun neurriak har ditzan eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, Diputazioarena baita errepide horren jabetza. Bildu, PSE-EE eta PP eskaera egitearen alde agertu dira, eta EAJ-k

abstentzioaren alde egin du.

Aipatutako BI-634 errepidean, al-tuera duten zebra-bideak, argia duten seinaleak eta abiadura adierazleak jartzea eskatu dute. Gainera, autobian dagoen 'Sopelana Sur' seinalearen ordez 'Larrabasterra' jartzea ere eskatu dute.

Aldundiak errepidearen jabetza Udalari ematea proposatu du, baina Sopelako udal-bilkurak aukera hori ez du aintzat hartu, "errepide hori eskualdeko beste herri batzuetako bizilagunek erabiltzen dutelako, eta beraz, eskualde ezaugarria duelako, eta ez herrikoa". ○

Amaya Garcia > Sopelako Salerosle Elkarteak

"Jendeak herrian erosketak egitea gura dugu, merkatal-guneetara joan beharrean"



1.500 euroan baloratutako saskia zozketatuko dute Gabonetan

'**Hemendik**' saria jaso barri du Sopelako Salerosle Elkarteak, herriko dendarien alde egiten duen lanari esker. Amaya Garcia da elkartearen presidentea, eta sektoreak bizi duen egoera larriaz egin du berba.

—Zein da Salerosle Elkarteak egiten duen lana?

—Gure helburua herriko komertzioak sustatzea da, eta apurka-apurka hazten joatea. Horretarako hainbat ekimen egiten ditugu, zozketak adibidez. Egin dugun azken jarduera 'euro-auria' izan da; hiru egunetan zehar pailazo bi ibili dira herrian sei mila deskontu-txartel banatzen, eta oso arrakastatsua izan da. Baina egoera larria da, erosketek behea jo dutelako eta jendeak ilusioa galdu duelako, eta horrek eragina du herrian.

—Gabonetarako zer edo zer berezirik prestatu duzue?

—Merkatal-gune handietara joan beharrean, sopoloztarrek herrian bertan erosketak egitea gura dugu. Horretarako,

azaroaren 17tik urtarrilaren 5era arteko zapatu arrastietan 20 dendak baino gehiagok komertzioa zabaltzea erabaki dugu. Azken hamar urteetan Sopelako komertzioek ez dituzte atak zabaldu zapatu arrastietan. Ia horrela jendeak erosketak herrian bertan egitea lortzen dugun. Gainera, Sopelan ia-ia gabonetako erosketak guztiak egiteko aukera dago.

—Erabaki hori eztabaidagarria izan daiteke hainbatentzat, langileek zapatu arrastietan lan egin behar dutelako...

**«Egoera larria da, jendeak ilusioa galdu du eta horrek eragina du herrian»**

—Ez, leku gehienetan zapatu arrastietan zabaltzen da, Sopela eta Bizkaiko beste herriren bat kenduta. Gainera, jendeak momentu hori baliatzen du erosketak egiteko, astean zehar lan egiten du-eta; pozik daude erabaki honegat. Horretaz gain, komertzioak zabalik egonez gero bizitasuna ematen diote herriari. ○

DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

## Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**OINUTSIK**  
KONTSULTA PODOLOGIKOA  
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
[oinutsik@euskaltel.net](mailto:oinutsik@euskaltel.net)



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

**Itziar Castrillo** > Saxofoi jolea

“Musikaria etengabe ari da ikasten, bere musika-tresna ezagutzen eta horregaz esperimentatzen”

Azken urteotan hainbat musika taldetan ibili da Itziar Castrillo saxofoi jolea: Sutik, All Jazzera, Katamalo e.a. Berangoztarra The Travelling Brothers Big Band taldeagaz dabil egun, eta kontzertua eskainiko dute Sopelan abenduaren 14an.

—Txiki-txikitatik ibili zara musikaren munduari lotuta, ezta?

—Bai, musikagaz lehen urratsak Ander Deuna Ikastolan eman nituen. Berangoko Udal Musika eskolan Lurdes Urangagaz eta Juana Mari Calatraveñogaz solfeo ikasi nuen eta horren ostean, saxofoia aukeratu eta erdi mailako zein goi mailako ikasketak egin nituen saxofoi klasikoan.

—Ikasketak amaitu, baina saxofoiari lotuta jarraitu zenuen...

—Ikasketak amaitu eta hor hasten da musikariaren ibilbidea. Nik hasieratik argi izan nuen irakaskuntza izan zitekeela bideetako bat, eta 2002. urtetik saxo irakaslea naiz Durangon.

—Irakasle izateaz gain, ibilbide luzea egin duzu hainbat musika-taldetan.

—Formakuntza klasikoa izan nuen, baina orain dela sei urte, musika modernoan eta jazzean murgildu nintzen, eta hor nabil ikasten. Izan ere, musikaria etengabe ari



Berangoztarra Free Ends taldeko kide ere bada

da ikasten, bere musika-tresna ezagutzen eta horregaz esperimentatzen. Musikaria naizen aldetik ez ditut inoiz eszenatokia eta zuzenekoak alde batera utzi. Sutik taldean hasi nintzen, eta gero All Jazzera taldeagaz hainbat urte eman genituen funk-rock-a egiten eta Euskal Herri osotik ehundik gora kontzertu eskaintzen. Oso oroitzen onak ditut sasoi horretakoak. Azken aldian Katamaloren sei kontzertuko biran parte hartu dut.

—Eta egun zein proiektutan zabilta?

—The Travelling Brothers Big Band proiektuaren parte naiz. Leioako blues seikote honek oso proiektu interesgarria jarri du abian, eta Sopelan kontzertua eskainiko dugu abenduaren 14an. Horretaz gain, Durangoko hiru gazterekin batera Free Ends taldea osatu dugu, lagunak garelako eta batez ere modu askean jo gura dugulako. Jazz standarragaz hasi gara, non amaituko ote? ○

**Koixi euskara taldea** > euskara Lemoizen barrena zabalduz

“Herrian euskararen egoeraz kezkatuta dagoen orori ongi etorri”



Bileretan hamar bat lagun inguru batzen da

**Aurten** lehen aldiz, martxan jarri dute Lemoizen euskara taldea, eta ordutik bidea egiten ari dira Lemoizko hainbat lagun helburu bakarragaz: euskararen erabilera sustatu. Horren berri izan, eta gehiago ezagutzeko asmoz, UK Koixi taldeko kide batzuek mintzatu da.

—Zer dela-eta erabaki zenuten euskara taldea Lemoizen osatzea?

—Bertoko eskola arduratuta zegoen umeek gero eta gutxiago erabiltzen zutelako euskara. Hori dela-eta, eskolak elkarteak zein Udala bilerara batera deitu zituen, eta talde bat osatzea proposatu zien. Horren ostean, aurtengo otsailaren 8an egindako bileran, taldea behingoz sortzea erabaki genuen.

—Nortzuek osatzen duzue taldea?

—Taldea herriko elkarte gehienek parte hartzen dute ahal den neurrian; baina, taldea erabat irekia da; izan ere, euskarak bizi duen egoeraz arduratuta

dagoen edozeinek parte har dezake.

—Zelako harrera izan duzue herrian?

Orain arte antolatutako ekimenetan jende askok parte hartu du; barbarako, mendi-martxan zein herri-lasterketan 100 pertsona inguru batu ginen.

**«Herrian harrera oso ona izan du Euskara taldeak; jendeak parte hartu du»**

—Orain arte zer ekimen egin duzue euskara sustatzeko?

—Helburu nagusia, esan bezala, Lemoizen euskararen erabilera bultzatzea da. Horretarako, bi lan-esparru ikusten ditugu. Alde batetik, elkarte bakoitzak pentsatzea zer egin dezakeen euskara sustatzeko. Bestalde, helburu hori betetzeko, euskara sustatzeko alegia, ekimen hauek antolatu ditu Koixik, besteak beste: aurkezpen-jaiak, ikastaroak, mendi-martxa eta herri-lasterketa.○



## AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harritzeko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**Garaizar**  
*barrikuntzak*

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Ileta kalea 1 • ALGORTA

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia · fisioterapia

**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor Ianda 4, Sopela  
Telf.: 946026779

## ZALDI-PROBAK URDULIZEN ABENDUAREN 7TIK 11RA BITARTEAN

Urtero legez, aurton ere, zaldi-probak helduko dira eskualdera, Urdulizera hain zuzen. Horrela, zaldi-probetan parte hartzeko izena emon duten parte hartzaileak Iparralde probalekuan ikusteko aukera izango dugu, hilaren 7 eta 11 bitartean. Hilaren 9an ez da izango probarik; beraz, lau eguneko lehiaketa izango da. Proba guztiak gaueko 21:00etan izango dira. Bertara, ohi legez, Bizkaiko zaldi onenak hurbilduko dira. Lehiakideek 4.500 euroko sari nagusia lortu ahalko dute; hortaz, borroka latza biziko dute lehiakideek; azkenik, jakiteko nork mugi dezakeen 900 kiloko harria distantzia luzeagoan. Momentuz, guztira 12 lehiakidek parte hartuko dute norgehiagokan. Hortaz, zaldi-probak gogoko izanez gero, Urdulizko Iparralde probalekura hurbildu, eta goza egizu!

## PLENTZIako II. POSTAL LEHIAKETA ABIAN

laz bezala, aurten ere etxeko txikiak zein gaztetxoek aukera izango dute postal polit bat egin, eta Plentziako Udalak antolatutako lehiaketa parte hartzeko. Lanak aurkezteko epea abenduaren 7an amaituko da; sari-banaketa, barriz, Goñi Portalen izango da abenduaren 24an eguerdiko 12:00etan. Beraz, gabonen giroaz guztiz jantzita gaudela, buruari eragion postal eder eta originalena egiteko.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Plentzia

Eztarriak berotu, **abenduan** badaukagu **zer abestu-eta**



Plentzia Kantagune taldeak herria kantuz girotuko du

**Gabonak hortxe** ditugu; hala esaten digute behintzat kaleak apaintzen dituzten zuhaitz zein argiek. Eta garai hauek batera, kantazale ugarik ezta-ria berotzen hasi, eta urteroko erreper-toriogaz lagunduta kaleak girotuko ditu; horrela gertatuko da Plentzian, bederen. Izan ere, bertako kantazaleak gargarak egiten hasi dira, abesteko hitzorduetan kale ez egiteko. Abenduan Plentzia Kantagune Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu abendua abestuz pasa dezagun; horien artean, abenduaren 6an "KANTUJIRA" ekimena antolatu dute. Horretan, bertaratutakoek beta izango dute Plentziako Alde Zaharrean abesteko; bada, eguerdiko 13:00etan Elizako plazan lotu dira, eta, esan legez, orduak egongo dira betiko kantuez herriko kaleak girotzen. Gainera, indarrak hartu, eta abesten segitzeko poteo txikia egingo dute bitartean herriko tabernaz taberna. Baina, ez

pentsa, ez da horretan lotuko kantarien kontzertu herrikoia; hortaz, abenduaren 14an arrastiko 19:00etan, Plentzia Kantagunea gabon-kantak entsetzeko batuko da Kristo basilizian. Horren ostean, baina, bertan bildutakoek poteo txiki bat egin, eta kaleetan kantuz ibili

**«Abenduaren 14an  
19:00etan Kristo basilizian  
Kantagunek antolatutako  
entsegua egongo da»**

ahalko dira. Azkenik eta jadanik gabonetan murgildurik, Plentzia Kantaguneren eskutik ere, abenduaren 22an eguerdiko 13:00etan Eliz enparantzan batuko dira herrian barrena ondo pasatuz kantatzeko. Ekimen horien xede nagusia zera da: beti bizirik egondako tradizioari eustea, eta noski kaleak euskarazko abestiez girotzea. Horrenbestez, kantazalea izanez gero, hortxe aukera parebako! ○

# Abe. 5 - Abe. 21

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

▶ **Berdintasunari buruzko argazki-lehiaketako irudiak.** Abenduaren 14 arte. Goñi Portalen.

### ERANDIO

▶ **Angel Manuel Ruiz Mendozaren margoak.** Abenduaren 14 arte. Astrabuduko kultur etxean.

### GETXO

▶ **Bosteko.** Abenduaren 4tik 30era. Algortako Torre aretoa.

▶ **Argazkiak: La Nueva Era. Reivindicacion y lucha de un pueblo.** Abenduaren 9an. Areetako Getxotik Mundura karpan.

▶ **Laurita Silesen marrazkiak.** Abenduaren 19tik urtarrilren 4ra. Algortako Kultur Etxean.

### LEIOA

▶ **Gorakada Antzerkiaren XXV. urteurrena: txotxongiloak.** Abenduaren 13tik urtarrilaren 27ra. Kultur Leioan.

## ANTZERKIA

### GETXO

▶ **Kontularien kluba.** Abenduak 14, 19:00etan. Algortako Kultur Etxean. Doan.

▶ **Ipuinaren ordua.** Abenduak 20, 18:00etan. Villamonteko haur-liburutegian. Doan.

### LEIOA

▶ **Nadie lo quiere creer (La Zaranda).** Abenduak 14, 20:30ean. Kultur Leioan. 15 euro.

### SOPELA

▶ **Amar no es dominar.** Abenduak 16, 18:00etan eta 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.



Info+: [travellinbrothers.com](http://travellinbrothers.com)

### ▶ Musika

## The Travellin' Brothers Big Band Sopelan

*Christmas Special* gabon-kantuz osatutako diskoa grabatu barri du Leioako The Travellin' Brothers taldeak eta aurkezpen-kontzertuak eskainiko dituzte datozen asteotan. Leioan joko dute Gabonetan baina, horren aurretik, Sopelan ere izango dira, Big Band eta guzti: abenduaren 14an izango da kontzertua, 21:00etan, Kurtzio Kultur Etxeko areto nagusian; sarrera 9 euro kobratuko dute. Disko barria osatu dute sei abestigaz: gabon kanta euskaldunakaz batera, Ameriketako abestiak ere grabatu dituzte. Bertsio bitxiak ei dira seiak, swing & blues-en erritmoan; eta bideoklipa ere estreinatzekotan dabilza. Animatu eta hurbildu, kontzertu gitxi emongo dute-eta.

• **Non:** Kurtzio Kultur Etxean • **Noiz:** Abenduak 14, 21:00etan

## MUSIKA

### ERANDIO

▶ **Dantzaldiak.** Abenduak 9 eta 16, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean.

▶ **Euskal kantu liriko barria.** Abenduak 15, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 3 euro.

### GETXO

▶ **Gringo.** Abenduak 13, 20:00etan. Algortako Usategi tabernan. Doan.

▶ **Talk of da town.** Abenduak 15, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 10 euro.

▶ **Jazzte Borrazzte Band.** Abenduak 20, 20:00etan. Romoko Billares tabernan. Doan.

### LEIOA

▶ **Leioako Gazte Orkestra.** Abenduak 20, 20:00etan. Kultur Leioan. 4 euro.

▶ **Gau flamenkoa: Raul Mico + Las Migas.** Abenduak 21, 21:00etan. Kultur Leioan. 20 euro.

## ZINEMA

### GETXO

▶ **Wilaya.** Abenduak 7, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

▶ **Madagascar 3.** Abenduak 9, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

▶ **Almánya. Willkommen in Deutschland.** Abenduak 14, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

▶ **Frankenwinnie.** Abenduak 16, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

### SOPELA

▶ **La dama de hierro.** Abenduak 13, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

## BESTEAK

### GORLIZ

▶ **Bizkaitar Saltsan ipinitako**

**Barraskiloen V. Lehiaketa.**

Abenduak 8, 8:00etatik aurrera. Eliz Plazaren atzean.

### BERANGO

▶ **Bigarren eskuko merkatua.** Abenduak 8, 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 18:30era. Pilotalekuan.

### PLENTZIA

▶ **Kantaguneren entsegua.** Abenduak 14, 19:00etan. Kristo basilizian.

### LEIOA

▶ **Nekazaritza eta abelzaintza azoka.** Abenduak 16. Bulebarren.

### LEMOIZ

▶ **Izenadubara urteera.** Abenduak 17, 17:20an. Armintzako autobus geltokitik. 7 euro (izena aurrez emon).



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Paperetik harago

Argi dago liburuetako istorioek, sarri, orriak gainditzen dituztela eta bestelako esparruak bustitzen dituztela. Baina komikiakaz gertatzen dena ezohikoa da: jendearen bizitza ere bustitzen dute askotan. Horren lekuko dugu Getxoko Komiki Azoka arrakastatsua: azaroaren azken aste akabuan egin zuten XI. edizioa. Aurten Manga Azokatik banatu dute eta, horrenbestez, azoka bi izan dira Areetako karpapean.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Plentzia

postal bihurtua

Jakin badakigu, uda heldu, eta Plentzia udatarriez lepo betetzen dela; hondartza ederrak, eta inguru erakargarriak izatea ezinbestekoa da jende ugari Plentzia aukeratzeko. Antza denez, aspaldiko garaietan ere jendeak ordurako Plentzia opor-leku legez ezagutzen zuen; udako postaletan haren irudia agertzeak hori adierazten digu, bederen: askok, sarritan postal horiek izaten baitituzte oporretako irudi. Postal hau Donostiara bidali zutela emoten du, hori irakur daiteke zigiluan.

[berbetan]

Bertsotan bat-batean 13 urtegaz hasi zen Xabi Paya (Getxo, 1982); ezagunak dira horretan bere jardunak eta lorpenak. Itzul-pengintza eta Interpretazioko (EHU) euskarazko lehen promozioko lizentziaduna. HUEZIn (MU) Ikus-entzunezko Komunikazioko irakasle izandakoa. Multimedia komunikazioa eta gidoigintza masterrak egin ditu. Birminghamen emon ditu urte bi, han Europako kultura modernoak masterra ere egin du. Datorren urtean Ameriketara ei doa ahozko inprobisazioaz ikertze-  
ra. Egun, Irakurle Université de Pau et des Pays de l'Adour-en (UPPA), Euskal Ikasketetan irakasle Baionan, euskara eskolak emoten Pauen. *Bizitza amets* (Calderon de la Barca) itzulpena kaleratzekotan da, zenbat buelta emango ete zizkion bertso-  
lerro bakoitzari, buruz, gaztelaniaz eta euskaraz, botatzeko gai denean! *Desio izeneko tranbia* (Tennessee Williams); *Peter Pan eta jaka eskarlata* (Geraldine McCaughrean), *Maite nuen* (Anna Gavalda) eta *Herria* (Marie Darrieussecq) ere itzuli ditu.

# Xabi Paya

## Plaza eta Akademia!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zer egin duzu Birminghamen?

—Aspaldi bi Xabi existitzen ziren nire baitan: bata, Xabi itzultzailea, kanpora joan nahi zuena, itzultzaile batek kanpoan pasatu behar duelako denbora asko, hizkuntzekin harremanetan... Amerikan egona naiz, baina, Ingalaterran inoiz ez. Bestea, Xabi bertsolaria; “*txapelketa dator...*”. Gogo bizia nuen. Txapelketa irabazi eta gero, gogoeta garaia bizi izan nuen, “*zertarako nahi nuen?*”; konturatu naiz, batez ere gogoeta neukala bertsolari nintzela erakusteko; ez bakarrik Frediren anaia! Argi dago, bertsolariak irabazi zuen hasieran, baina bestea ez zen isiltzen. Azkenean, aukera oso polita sortu zitzaidan: Birminghamera unibertsitateera joatea Euskara eta Euskal Kultura irakasle, irakurletza proiektuan. Karamelutxo bat! Euskaraz gain, euskal kulturako eskolak ere eman behar nituen, aprobetxatu nuen, masterra egiteaz gainera, distantziara Eusko Ikaskuntzako Euskal Ikasketak graduondokoa egiteko, lehen HUEZIn Euskal Kulturgintzaren Transmisiokoa egin nuen... Euskara irakasle izateko beharrezko tituluak baditudala uste dudala-

ko, baina kulturaren? Nork ematen du euskal kultura? Han nengoela, zinema Birminghamen oso garrantzitsua zela antzeman nuen, eta hortik erakar nitzakeela... Baina, *Balada triste de trompeta* euskal zinematzat hartu behar nuen zuzendaria euskal herritarra delako?

—Betiko eztabaida!

—Hori da. Hasieratik ezetz erabaki nuen; hori espainiar espektroak sustatuko zuelako... ‘Guretzat’ jo nituenak eraman nituen, *Arriya*, *80 egunean* e.a.; zuzendariekin eta foro bat antolatu genuen. Hori

**“...bata, Xabi itzultzailea, kanpora joan nahi zuena; bestea, Xabi bertsolaria, “txapelketa dator...”, gogo bizia nuen”**

delako ez bakarrik euskaraz egiten den zinema, baizik eta euskal errealitateak eta errealitatearentzat egiten dena. Gero, Larry Trask euskaltzainaren omenez urtero hitzaldi berezia sortzeko aukera eduki nuen. Ohorezko hitzaldi mota horiek oso tipikoak dira. Trask hil eta urte gutxira bere alargunak Birminghamgo Unibertsita-

teari senarraren funtsa osorik eman zion. Izoztutako ogiz beteriko kutxak aurkitu nituen han! Liburuok katalogatzen eman ditugu urte biok; hurrengoa da hori hemen jakitera eman, transkribatu beharreko esku-izkribu batzuk ere... Hainbat kontu sortuta edo, Oxfordetik harremanetan jarri ziren nirekin, mundu mailan nahiko famatua den Iberiar Ikasketen Foroaren harira; galegoa, portugesa, katalana, gaztelania, aragoiera e.a. Euskara inoz ez. Oxford lako unibertsitate batean Euskal Akademia Iberiar Ikasketen arlotik

zertan dabilen erakusteko interesgarria zela iritzita, aurrera egin nuen... “Nazio izaera gurutzabidean” jarri genuen gaitzat, hizkuntzak eta kulturak hainbeste gurutzatzen diren gizarte honetan, nola eraikitzen duen norbaitek bere nazio izaera... Ikus-entzunezkoen eta literatura-  
ren bidez egingo genuela adostu genuen.





Harrituta lotu ziren ponentzia gehien euskal arlotik aurkeztu zirelako; 16 aukeratu zituzten, tartean: Amaia Nerekan, Josu Amezaga, Ur Apalategi, Mari Jose Olaziregirenak e.a. Beste leku batzuetan ere hitzaldiak eman... esango nuke, lan pila egin dudala. Denbora gehiago nuen, hemen inertzia asko ditugulako, edo neuk gehiago: bertsoarenak, euskaldun izatearenak, zenbat manifa, zita, Durangoko Azoka... Denak bat-batean agendatik desagertu zitzaizkidan; aukera izan nuen lan batzuk gusturago egiteko eta euskararen, Euskal Herriaren edo euskal kulturaren mesede izan daitezkeenak egiteko ere bai. Etxepare Institutuaren sorrerarekin ere kointziditu dut, eskuzabalik hartu dituzte nire proiektuak, beraientzat ere aukera ona zelako...

—**Gutziz ez zenuen utzi bertsolariatza?**

—Bertsotan askotan egiten dut neure buruarekin, nahi gabe, askori gertatuko zaigu, neurriaren barruan pentsatzea, errimatzeta... Han erabat uztea erabaki nuen; 3-4 hilabetera, berriz! Hori bai, ikertzeari ekin nion. Euskal Herrian gaur egun dagoen hutsune handienetarikoa da; bertsolariatza izan zitekeenean munduko ahozko inprobisazioaren aitzindari ikergai gisa, Akademian, unibertsitatean ez dago biderik. Ikerketa egin nahi nuen, oso argi nukan: bertsolariatza ikertzeko tresna bat sortu nahi nuen. Erabili diren teoria guztiak zukutu eta hortik taxonomia bat atera, tresna bat. Taxonomia esan dezagun diamantea dela, horren erdian bertsoa edo saioa jarritz, zuk erabakitzen duzu zein kristaletatik begiraten diozun. Ikerketa asko daude egin gabe! Ikuspegi feminista, adibidez, ahozko inprobisazioaren barruan, ematen duen lehenengo ondorioetako bat da dena gaizki egin dela. Eta, emakumea Euskal Herrian oso garrantzitsua izan da ahozko tradizioan, transmisioan, baina ez dago jasota. Ikerketa egiteko aukerarik hemen ez dut izan. Ikerketari esker neurri handi batean, ezin ziurtatu, baina datorren urterako Amerikako Oral Tradition Centeren ikerketa-beka edo

eman didate. Munduko leku onena ez bada, hortxe-hortxe; pena ere ematen dit, hain urrun joan behar hemen iker genezakeena aztertzeko! Eusko Ikaskuntzako graduondoko tesina ere 'Bertsolaritzak nolako aberria eta abertzaletasuna sortu duen historian zehar' gaiari buruz egin nuen. Datu zoragarri eta izugarriak ondorioztatu ditut. Literaturan egiten da: zein da kano-

## “Bertsolaritza zatekeenean munduko ahozko inprobisazioaren aitzindari ikergai gisa, unibertsitatean ez du biderik”

na, zein periferikoa; bertsolariatza ere badago! Arabako bertsolari bat inoiz ez da egon finalean; zergatik? Kanon bat existituko da orduan; zein? Hori dana azter daiteke literatura idatzian bezala; ez da egiten! Kanpoan egin beharko da. Tristea da.

—**Ez duzu bertsolariatza utzi inondik inora. Azken itzulpenean ere ibili zara!**

—Egia da; horretan ere... Nire lehenengo saioan, Herri Urratsen, aurkezleak Xabier Paella bezala aurkeztu ninduenean ez banuen utzi! Ezinezkoa da, gehiegi gustatzen zait. Baina beste era batera ulertzen dut eta uste dut ulertu beharko genuela, oro har; ulertuko dugula. Txapelketen *bomm*-a ezin izango da etengabe gertatu...

—**Ez zara txapelketara aurkeztu. Hiru uribekostar finalaurreko berean. Zer iritzi?**

—Garai batean, “*Euskal Herrikora heldu*

## “Lehen, abangoardia txapelketa zen; innobatzeko... Orain aurrerapauso handienak hortik kanpo ematen dira”

*nabi dut!*” nioen, baina, aurkeztu (2009) eta, ordurako ere konturatu nintzen, akaso, txapelketako bertsolariatza ez zitzaidala hainbeste gustatzen. 2001ean, agian, bertsolariatzaren abangoardia txapelketa zen; innobatzeko, inprobisatzen hobetzeko bertsolariak behar zutela, tira egiten zielako... Maialenen “Kaixo Maialen zer mo-

duz?” bakarkako hark bertsolariatza bera aldatu zuen, azken puntua garrantzitsu izatetik garrantzitsu izatera bai, baina bertsoaren hezurdurari garrantzia ematera pasa zen; bertsolariatza deskriptiboa sustatu zen, ez analitikoa... Orain aurrerapauso handienak txapelketatik kanpo ematen dira. Orain, txapelketa pasa da, argi eta garbi, promozio-bide izatera... Nik sentitu nuen

bertsolariatzak beste zerbaitekin eman behar zidala. Publikoarekin konektatzea eta umorea asko gustatzen zaizkit, komunikazioa mugarik gabe. Txapelketa umorea da, baina parametro jakin batzuetan; zortziko txikian, inoiz ez bakarkakoan... Jartzen badituzu 8 bertsolari itxaron gelan, seik norbait hilko dute, zarpigarrenak bere emaztearen haurdunaldia aipa, baina 3. bertsoan umea hilko da... Gizarte honekin bat dator; drama... Noiz irabazi du azkeneko Oscar bat komedia batek? Orain gitxi arte ez zen planteatzen bertsolari bat txapelketara ez aurkezte, jendeak sinesten edo duela gure bizitza txapelketan bizitzea dela; akaso gehiegi komunikatu da filosofia hori. Finean, asko arrazoiz dezaket, baina badago arrazoitu behar ez dena: ez nuen gogorik. Ingalaterran beste mundu batean

egon naiz. Imajinatzen dut batzuk orain zelana egongo diren... Hori biziko nuke bakarrik baldin eta nire txapelketarekiko antziz, irabazteko gogo handiagoa balitz. Ezen ez da jendeari kantatzeko gogo, nik kantatzen diodalako! Saio nahikotxo dut, batzuk oso bereziak... Bertso Trikiband, Getxoko Banda eta trikitalari batekin, go-

goa pizten dit; musikaren bidetik emateko asko dagoelako! Esaten didate “*erretiratu egin zara!*”, 30 urte ditut! Agian hurrengorako gogo izugarria, “*Txapelketa izan dut!*” sentitzen badut... Horrek eraman behar zaitu txapelketara. Orain zer lortuko nuke? Plaza gehiago? Oraingoz ez dut gehiago nahi; izen hobea? Beste txapel bat? Niri lehenengoak egin zidan ilusioa... Argi utzi

## “Esaten didate “erretiratu egin zara!”, 30 urte ditut! Baina, Xabi bertsolari apur bat akademizatuko dela, ziur”

nuen! Saltoka ibili den bertsolari bakarra! Gaztelaniaz kantatu... Ez dakit horregatik den, baina Iparraldetik ez didate deitu! Ez naiz tropeleko bertsolari, nire berezitasunak ditut, eta gustatzen zaizkit! Eta hara, azkenean, erori naiz, ematen du gogorik eza beti asko justifikatu behar duzula. Gehiago arduratuko ninduke plazan gustura ez sentitzeak, gogorik ezak; baina badudanez... Baina, Xabi bertsolari apur bat akademizatuko dela ziur nago. Bertsolariatzari Akademian eman ez zaion arreta ematea lortu ahalko banu... eta inguruko ekosistemari! Ingalaterran hitzaldi gehienak hala hasten nituen: “*Euskal Herria, euskaldunak omen dira Europan dauden izaki zaharrenetarikoa batzuk. Lehen libu-*

*ria 1545ean idatzi; 1800 arte ia ez da literatura; bitartean zer? Lo? Atxagak literatura trikuaren irudia... Literatura lo, agian; baina herritarak? Kultura? Kantuan ibiliko ginen, ipuinak kontatzen, sermoiak entzuten, biologikoki prestatuta gauden ahozko jardunen batean...*”. Izaera globaleko literaturari kasu egiten jarraitzeak, agian, berdinduko gaitu; baina gure izatea

aurkitzen ez digu lagunduko. “*Txikia ederra, ezberdina, zoragarria...*” Orain idazten oso onak gara, baina ahozkoa da gure esentziaren beste parte bat! Esango dugu gure hizkuntza kamutsa dela, ez dabilela, ez duela funtzionatzen... ahozkoari uko eta saiatu bagara idatziz jasotakoaren kopia bersortzen, jakina! Arazoak izan behar ditugu ezinbestean!

Besteak txapelketan: promozio-bide bada, batzuei oso ondo datorkie. Zortzientzako lekua baino ez! Eta bertsolariatza kanona berdina existitzen da. Halere, zein dira parametroak? Helburua? Mugimendu moduan zer transmititu nahi dugu? Galdu egiten naiz, benetan. Egia, txapelketari edo gaiei begira, askoz ere existen-

tzialistago nago. Txapelketak ez ote du zentzu hori galdu? Besterik gabe egin behar da? 1935ean sortu, bereziki, alderdi bertzaileek bultzatuta, aberriaren eraikuntzarako tresna gisa... Hori, esango nuke, betetzen duela. Euskal Herrikoan gai batzuei txalo jo zitzaie; bertsolari moduan, ez da sintoma ona... Bestalde, Fredi, Arrate eta Jone; hiru kasu oso ezberdin. Arratek dauka bide “errazena”; finalean egoteko moduko hautagaia bada, teknika ona, egin behar duena: aurrera! Jonek, finalean sartu, lekua berreskuratu nahiko du, urte bateko kontua ez zela izan erakutsi, ez dakit nor ez zegoelako... Gure anaia santuak ez zela aurkeztuko esaten zuen. Gogo sortuko zitzaion, ambizioa. Bizkaiko Txapelketan gehien egon denetakoa izango da, Igor, Unai eta Iratxerekin. Bertsolari oso ona da, baina bere izaera artistarena da: sor dezake 10eko bertso bat ala 0koa. Txapelketan hori ez da onena, hobe dira 6koak. 10+0 batezbestekoa 5, 6+6=6. Plazarako, akaso, 10ekoa deituko dute... Anaiak plaza nahiko ditu, sare batzuetan asko; ez dakit gaztetxeetan berak baino gehiago abestu duenik dagoen! Nahiko seguru dabil, batuaz egin du... Gerora ikasi genuen bizkaiera; nik 17 urterekin, “*ikasi beharko, edo Bizkaiko bertsolarien artean oso arrarorak gara!*”, bertsoara 2004an pasa nuen, lanketa berezia eskatzen du... ○

## Itzulpengintza. Azkena, *La vida es sueño* (Calderon de la Barca)

—**Horretan ere bertsolariatza lagun!**

—Ez da erraza izan. Beldur naiz jendeak nola hartuko duen. Azkenaldian gehien antzerkia itzuli dut, taularatzen dena; bizi dena, zoragarria! *Desio izeneko tranbia* itzultzea “marabillosa” izan zen, baina ez zen bizi; hori ere antzerkia zen, baina ez hau bezalakoa. Literatura Unibertsala zerrendan ikusi nuenean... Zoragarria da! 3.319 bertso-lerro, neurtuta eta errimatuta; Maslowren piramidearen onarrian dauden gaiez: bizitza, ametsa, ardura e.a. Ingelesez idatzi izan balu, Shakespeare! Errimatuta eta neurtuta itzuli behar nuela

erabaki nuen, neurria errespetatu! Hala-koak beste modu batzuetan ere euskaratu dira; euskal neurria egokitzea ere pentsatu nuen; beste hizkuntzek nola egin duten ere aztertu nuen... Baina, zergatik ez ahalegindu dagoen horretan?! Informazioa sartzeko leku gehiago behar bada, beste lerro bi gehitu; hau da, neurriaren silaba kopurua moldatu beharrean, beste estrofa oso bat sartuz egokitu informazioa. 10 orrialde gustura egiten dituzu, erronka da, Ingalaterran egin nuen, trenetan askotan; baina, obra osoa?! Halere, izugarri gozatu dut! Errima manten-

du dut, zelanbait, euskaraz errima asonanterik ez dagoelako, kontsonantea jarri dut, gehiago errimatu. Edukia, begira nola fusionatuko diren Xabi biak: poema aztertu, helburu komunikatiboa, erretorikoa zein da? Gero, esaten duena esaldi bitan jarri, edertasunez, errimaz eta neurritz. Itzultzeko beste modu bat izan da. Akademian agian postmodernoa dela esango lukete. Helburua, forma, edukia zaindu, eta saiatu naiz denetan parean ibiltzen. Ezohiko zerbaitekin izan da. Eran-tzuna? Irakurri duten hurbilekoak eta editorea pozik, baina jendea...






# Erraldoiaren erraiak

Mikel Alonso argazkilaria bilbotarra pribilegio handiaren jabe izan da, egun batzuetan behintzat; Lemoizko Zentralera sartu, eta 30 urteotan gitxi batzuek ikusi dituzten harresi barrukoak eta txoko ezkutuenak argazki egin ditu. Porlanaren artean bide egiten duen natura irudikatzeaz gainera, gure herriko garai bateko "sinbolo" esanguratsu baten museo arkeologikoa erakutsi gura izan digu. Antza denez, gure herriko historiaren atal garrantzitsua idatzi duen protagonista hilak, oraindik ere, badauka zer esanik.

Argazkiak: **Mikel Alonso**







**Zentral Nuklearra** > batzuen ametsa besteen amesgaizto bilakatu zenean

## Lemoizko Zentrala: gaur egungo mamua, atzoko historia bizia

**Orain 30 urte Lemoizko Zentral Nuklearrak atek itxi zituen; atek itxi, baina garai haietako protagonistak (zentralak berak) zutik dirau. Horrela, urteurrena den honetan, atzera begitu, eta erraldoiaren porlanezko horrei galdegin diegu; istorio ez hain urrunak konta diezazkiguten.**



Hogeita hamar urtez hutsik egon da

Hiru hamarkada igaro dira Lemoiz borroka antinuklearraren sinbolo nagusi bihurtu zenetik; 30 urte gure eskualdean eraikitako zentral erraldoiak atek itxi eta bakardadera kondenatu zutenetik; urte andana pasa dira herritarren aldarriek itxiera lortu geroztik. Urteak, hileak, egunak igaro dira, halere, afera horren protagonista, zentrala, hain zuzen, mamua da gure artean. Lemoizeko kostaldetik igaro eta itsasertzean altxa-

tzen den zementuzko eraikuntzak hotzikarak sortzen dizkie askori; oroitzapen ezabaezinak besteei; eta trantsizioa delakoaren malenkonia beste zenbaiti.

Zalantza barik: oraindik ere, herri-mugimenduaren garaiaren sinbolo nagusi dugu Lemoizko Zentrala.

### 2012 Fundazioak Zentralaren historia kontatzen duten lan editorial bi kaleratu ditu

#### Oroitzeko lanak

Aurten, Eusko Jaurlaritzak 2012 Fundazioa eratu du “2012 kulturaren urtea bakea eta askatasunagatik” proiektua garatzeko; horren baitan, hain zuzen, sortu dute *Lemoiz* lan editoriala. Hori lan bik osatzen dute; alde batetik, Raul Lopez Romo historiagilearen *Euskadi en duelo. La central nuclear de Lemóniz como simbolo de la transicion vasca* liburuak; eta beste aldetik, Mikel Alonso



Hamarkada hauetan natura kendu zioten eremua bere egiten ahalegindu da

argazkilariaren *Lemoiz* argazki-liburuak. Lan horrek bi ikuspuntu emon gure izan ditu; historian oinarritutako ikuspuntua baita arte disziplinan ere, hau da, argazkigintzan oinarritutako ikuspuntua ere. Azkeneko horren, hain zuzen, helburu nagusia gaur egun Zentralaren egoera irudikatzea izan da. Argazki

horien bidez, Mikel Alonsok bertako eszenatoki fantasmagorikoak argitan emon ditu. Eszenatoki hilaren bizitza irudikatu du egileak; izan ere, urteen poderioz natura bere eremua berreskuratzen saiatu da, eta hori porlanean hazten den likan argi antzeman dezakegu argitaratutako argazkietan. Egileak adi-

erazi duen legez, “*hilerria baino askoz gehiago da, Zentralak oroitzapen asko gordetzen ditu-eta*”. Argazki horiek erre-presentatu nahi izan dute garai hartako une historikoak; mugimendu antinuklearrak borroka horretan izan duen eragina eta indarra adierazi gura izan du, oro har, garai hartan egondako gatazka latza azalarazi du. Gainera, urteetan Zentralera debekatuta egon den sarrerak jendeak gertutik ezagut dezan galarazi du; bada, inoiz martxan

### Alonso argazkilariak Zentralaren eszenatoki fantasmagorikoak irudikatu ditu

jarri ez zen zentralaren bazterrik ezkutuena hurbiletik ikustea ezinezkoa izan da orain arte. Horrela argazki-lan honen bidez Mikel Alonso jendeak eduki dezakeen kurostitea asetzen ahalegindu da. Hori gitxi balitz, Lemoizko Zentralaren museo arkeologikoaren bidez Alonsok hogeitamar urteren joana islatu du, eta, esan legez, naturak berreskuratutako berezko eremua argazki eder bihurtu. ○

**Juan Luis Olan Sustatxa** > Mugimendu antinuklearreko kide ohia

“Jendeak ilusioz begiratzen zien garai barriei; horrelako mobilizazioak egin izan ez balira ez zen Zentrala itxiko”

Juan Luis Olan Sustatxak gazte sasoiari bizi izan zituen Lemoizko Zentralaren borrokaren une gorenenak; Uribe Kostako komite antinuklearrean aktiboki parte hartu zuen lemoiztarrak, eta denbora luze igaro arren, Olanek oso ondo gogoratzen ditu bertan gertatutako guztiak.

—Zelan bizi izan zenituen borrokaren garai horiek?

—Giro oso itxaropentsua zegoen; jen-

dea baikorra zen; mugimendu antinuklearean aritzen zen jendeak pentsatzen zuen zentrala ixtea lortuko zuela. Franco bi urte lehenago hil zen, eta jendeak ilusioz beterik begiratzen zien garai berriei, izan ere, jendeak pentsatzen zuen demokraziak gauzak aldatuko zituela. Oro har, jendeak bazeukan lan egiteko gogoia; eta nik zinez uste dut horrelako mobilizazioak izan ez balira, ez zela lortuko Zentrala ixtea. Herri-

mobilizazioei esker, besteak beste gaur ez dago zentralik Lemoizen.

—Zeintzuk ziren mugimenduaren berezitasunak?

—Mugimendua erabat asanblearioa zen; asanbleak erabakitzen zuen zein bide jarraitu, gauzak zelari egin; asanbleak dena erabakitzen zuen. Asanblea horietan ez zegoen liderrik; nahiz eta kasu batzuetan bozeramaileak izan, taldean ez zegoen liderrik. Niri iritziz mu-

gimendu hori demokratikoa izan zen; asanbladak ildo zehazten zuen gauza guztietarako, eta horrek hain zuzen, egiten zuen mugimendua demokratiko.

—Zentralaren mamuak leku berean jarraitzen du; hainbat hipotesi darabil jendeak zentralaren inguruan...

—Zentral nuklearra itxi eta hamar urtera Zentral termikoa egiteko proposamena jarri zen mahai gainean, garai hartan Iberduerok aurkeztu zuen zentral termikoaren proiektua; halere, zehazki ez dakigu benetan zer gertatu zen ez egiteko; agian zentral termikoa Zornotzan egin zelako, hemen egitea ez zuen merezi... Orain, barriz, badago, beste proiektu bat mahai gainean: BIMEP (Bilbao, India,

Madrid, Eskozia, Polonia) proiektua. Proiektu horren bidez, itsasoko mugimenduak, olatuek zein korronteez sor dezaketen energia aprobetxatu nahi dute. Horretarako, itsas-hondoan makina batzuk jarri behar dituzte, energia lortzeko. Badirudi proiektu hori aurrera doala. Proiektu horrek itsasoko metro koadro asko hartuko lituzke. Nire ustez, oraindik ere Iberdrolak gaur egun, zer edo zer egin nahi du; izan ere, Zentralean oraindik ere tendidu elektrikoak hor jarraitzen du. Argi dago eraikin horrek ez duela balio zentral nuklearra izateko, baina beste gauza batzuk oraindik ere egin daitezke. Tendidu elektrikoak kentzea beste ezer eraikiko ez den bermea litzateke. ○





**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Filmak eta mendia

Lehenengoz **Bilbon, Mendi Film Festival** zinemaldia, hilaren 14tik 23ra



Egitaraua eta info+: [www.mendifilmfestival.com](http://www.mendifilmfestival.com)

**Mendia** ardatz duten ikus-entzunezko lanen zinemaldiak, Mendi Film Festival, bosgarren ekitaldia beteko du aurten. Jabi Baraiazarra areetarra zuzendari duen mendi-zinemaldiaren aurreko ekitaldiak Gasteizen egin badira ere, aurtengoa, Bilbon egingo da, lehenengoz. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Kutxabanken babesu du. Alhondegian, BBK Aretoan eta Euskalduna Jauregian eskainiko dituzte lanak hilaren 14tik 23ra bitartean.

Sail ofizialean lehiatzeko 107 lan jaso dituzte 21 herrialdeetatik; film gehienak AEBekoak (16) eta Euskal Herrikoak (9) dira, Frantzia (8), Katalunia (4), Erresu-

ma Batua, Suitza, Italia, Polonia, Eslovenia, Eslovakia, Kanada, Brasil eta Alemaniak bidalitakoak ere jaso dituzte. Azkenean, epaimahaiak 40 lan inguru aukeratuko ditu lehiaketarako; film laburrak, luzeak zein dokumentalak ikusi ahalko dira, eta eskaladari eta alpinismoari buruzkoek gainera, mendikirolak, abentura, eskia, ekologia, ingu-

### «Eskaintza oparoa Jabi Baraiazarra areetarrak zuzentzen duen ekimenak»

rugiroa edo etnografia lako gaien gainekoak ere badira. Mendiko zineman eza-gunak diren zuzendarien (Alastair Lee, Anson Fogel edo Jordi Canygueral) eta gure mendizaleenak ere (adib.: Alex Txikon, Pou anaiak, Edurne Pasaban eta hildako Iñaki Otxoa de Olza) ikusi ahalko dira. Euskaraz *Berriro igo nauzu* (Carlos Rodriguez) eta *Parapentea eta ni* (Carlos Iglesias) film laburrak baino ez daude eskaintzaren barruan; ostera, film nahikotxo eskainiko dira euskarazko azpitoluakaz. Hainbat atzerabegirakok ere osatzen du egitaraua.

Bestalde, adituak direnek emango dituzten ikastaroak ere eskainiko dituzte, adib.: mendi-argazkilaritzaren gainekoa (Santi Yaniz) eta mendiko ikus-entzunezkoen ekoizpenari buruzkoa. ○

## Gibelurdinek diskoa kalean

**Herri-doinu** eta soinu **herrikoien** bertsiok, herri-kantak zein letra propioak...



Diskoa salgai: Gite-Ipeseko (Durangoko Azoka) eta Eztabaidaguneako (Azoka Alternatiboa) mahaietan

**Kale-musikaritzat** eta herri-musikaritzat dute euren burua Gibelurdinek taldea osatzen duten Josu Aurrekoetxea (gitarra, musugitarra, ahotsa), Ekain Iurrebaso (trikitixa, ahotsa), Ekaitz Larrazabal "Katxo" (alboka, perkusioak, ahotsa) eta Fredi Paiak (biolina, euskal txirula, ahotsa). "Perretxikoak bezala, berez ernatzen da musika, baldintza egokiak ematen badira", hala sortu zen taldea 2010eko udagoienean Uribe Kostan. Izen bereko estreinako diskoak 22 kantu batzen ditu eta hilaren 8an, 12:30ean Ahotsenea gunean (Durangon) aurkeztuko dute. "Gizarte

eredu honek helarazten digun musikaren aurrean, herrien nortasunaren, aberastasun kulturalaren eta gure sustraieen defentsarako borroka tresna da herri-musika. Beratu zabal-tzea, gure helburu garrantzitsuenetako bat bilakatu da proiektu honetan, datozen belau-naldiek euren herriko musika ezagun, dasta eta goza dezaten. (...) munduko herrialde desberdinetan musika bera entzuten da dantzaleku eta tabernetan, bertako musika entzutea zail bihurtzeraino...", hala dio euren aurrezpen-testuak, horra euren estiloaren halako definizioa... Eta bejondeizuela! ○

Info+: [www.gibelurdinek.eu](http://www.gibelurdinek.eu)

## sarituak > The Great Barrier

Bilbao Hiria Pop Rock Lehiaketaren 24. edizioko Pop-Rock ataleko irabazle izan zen Gorlizeko eta Getxoko The Great Barrier taldea, azaroaren 10ean jokatu zen finalean. Ia 30 bat taldek parte hartu du Pop Rock ataleko norgehiagokan, eta finalean Bilboko Priscilla Band eta Alacanteko Milton taldeei gailendu zitzaizen Aitziber Omagogeaskoa (ahotsa, mandolina, gitarra), Iñigo Larrazabal (gitarra), Alvaro Barriuso (gitarra), Arkaitz San Martin (baxua), Maria C. Guillen (teklatuak eta perkusioa) eta Claudio Pavanek (bateria, perkusioa) osatzen duten taldea; 5.000 euroko saria bere eginez.

Info+: [www.thegreatbarrier.bandcamp.com](http://www.thegreatbarrier.bandcamp.com)

## LP-a > Vulpes

Mallorcako Barbarela Rocken 1983an eskaintako Bilbo-Barakaldoko Vulpesen kontzertua jasotzen duen LP-a biniloan kaleratu dute; besteak beste, Working Class Records-ek salgai du. *Vulpes Barbarela*'83 lanaren (14 euro) 800 kopia baino ez dituzte egin. Emakume gazte osatutako lbalaldi laburreko punk-rock taldearen 12 zuzeneko kanta jasotzen ditu: "Sexo por la cara", "No lo sabe nadie", "Deja tu sitio de una puta vez", "Maria", "Andy es un punk", "Inkision", "Me gusta ser una zorra", "Punk de plastico", "Anarkia en TV", "Patada en los huevos", "Warhead-UK Subs" eta "La santa cruz". Orain urte batzuk Oihukagaz *Me Gusta Ser* plazaratu zuten, 25 urte eta gero.

Info+: [www.wcdiscos.com](http://www.wcdiscos.com)


## diskoak

**Hegoko lautadaren...**  
Balerdi Balardi  
Gor



Toño Muro buru, 15 urte eta gero, bueltan dira nafarrak. *Hegoko lautadaren ertzetik* lana esku artean dutela itzuli dira gainera. Folk, rock eta power pop estiloen buztarduraz osatu dituzte disko honetako kantuak. 1990ean ibilbidea hasi zuen taldeak gaur egun Toño Muro, Sergio Ibarrola "Zaratustra" eta Carlos Ortizek osatzen dute.

**Ez dugu etsiko**  
Gorka Knorr  
Elkar



Diskoaren izen nagusiaren ostean 'Antologia' irakur daiteke. Horrenbestez, abeslariaren "errepertorioko abestirik adierazgarrienek osatzen dute bilduma, hasi Txalaparta diskotik eta Lluís Llach-en *L'estaca* diskora bitarteko argitalpenen aukeraketan oinarritua". Abestutako kantarik gogoangarrienak batu ditu beraz, Knorrek.

**... Atzo, Gaur eta Bihar**  
Venetta  
Baga-Biga



Azkeneko hiru urteotako hirugarren lana kaleratzekotan da talde nafarra. Iragarri dutenez, abenduaren 5ean ipiniko dute salgai; daborduko aurreratu dutena diskoaren izena izan da, horra: *Fuimos, Somos Y Seremos - Atzo, Gaur eta Bihar*. Ska eta rock doinuak ez direla faltako aurreikus badaiteke ere, apurtxo bat behintzat itxaron beharko...

zure publizitatea hemen!

uk

publiuk@aldizkaria.biz

Tf. 944 911 337

etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**  
Liburudenda

Alargorta 8 (Eusko Herria kaleko bua)  
Tf. 94 491 68 05  
Algorta

## Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Durangoko Azoka

Liburu, disko, teknologia-gai... **300 ekitaldi, 400 nobedade, ijito-kultura** gonbidatu

**Hobetu** daitekeelako kritiken gaintik, Durangoko Liburu eta Disko Azoka zita dugu, zita delako; bilgune. "Boikota egitea" bururatzan zaienek ere 'baina' asko dituztelako. Aurton, bost egun barik, lau iraungo du, hilaren 6tik 9ra, 47. ekitaldia duen Azokak. Aurkezpean nabarmendu zuten, "inoizko egitaraurik zabalena izango du": 300 ekitaldi baino gehiago, 400dik gora nobedade, 253 salmahai (8 partaide barri), liburu, disko, teknologia-gai eta bestelako proposamenen artean. Diziplina barriei leku egiteko iaz sortutako Irudienea, Szenatokia, edo K@bia gu-neak egonkortuko dira. Plateruena kafe antzokiko emanaldiak ere Azokaren egitarau ofizialaren parte izango dira.

Batetik, ijito-kultura gonbidatu dute

### «Benito Lertxundik jasoko du aurten Durangoko Azokako Argizaiola saria»

aurten, eta horren ordezkaritzat, Kale Dor Kayiko elkarteko Manuel Vizarraga presidentea aurkezpenean azaldu zuenez, "gure ametsetakoa bat bete dugulako huntututa gaude, Euskal Herriaren bibotzean egon ahalko garelako". "Askorentzat ikusezin bezain urrunekoa" den kultura ezagutarazteko Azokaren egitarauak ekimen



Info+: [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com)

andana jasoko ditu, besteak beste: Euskal Herrira heldutako ijitoen hizkuntzaren, euskara eta erromanieraren elkartetik sorturiko "erromintxelaren", gaineko hainbat berbaldi, umetzako tailerrak, ipuin-kontakteta saioak, jokoak eta flamenkoa, txalaparta eta bertsoak buztartuko dituen ikuskizuna (hilak 7, Plateruena). Bestetik, Argizaiola saria aurten Benito Lertxundi musikariak jasoko du (ekitaldia hilaren 6an izango da).

Amaitzeko, aurrekoa bezain garrantzitsua, Ahotsenea gunean 88 emanaldi izango dira eta Azoka Alternatiboan ere egongo da zer gozatu eta erosi! ○

liburuak



**Made in Galiza**  
Sechu Sende  
Txalaparta

Galizian arrakasta lortu ostean, euskarara ekarri du Senderen lana Txerra Rodriguezek. Galizieraren egoera abiapuntutzat hartuta umerez, fantasiaz, garrantzitasunez, hamaika ipuin laburrek osatzen dute liburua; hainbat egoera eta gertakizun ezagun zaizkio euskaldunari...



**Idazten ari dela idazten...**  
Iban Zaldúa  
Elkar

Bere alderdi sortzailea eta literaturazalea parez pare ipini eta idazten ari dela idazten duen idazlea ipuin liburua kaleratu du Zaldúa. Ipuin danek literatura edo idazketa edo idazleak dauzkate gaitzat, eta idazle donostiarrenen ohiko ironiaz zipriztinduta daude.

[kirola]

## Olatu handien bila

**Punta Galea Challenge** olatu handien surf-txapelketa egingo da **martxoaren 31**



Lehiaketa egiteko gehieneko data ipini dute 2013ko martxoaren 31

**Etzetik gertu ere** badira olatu handiak eta, horregatik, zarpigarrenez antolatuta dute Punta Galea Challenge Olatu Handien Surf Txapelketa. Datorren urteko martxoaren 31 arte ipini dute epea txapelketa egiteko. Besteak beste, Getxo Surf Taldeak eta Euskal Herriko Surf Federazioak antolatzen dute Punta Galea Challenge, Getxoko Udalaren laguntzagaz.

Egun bakarrean egingo da proba, lau orduz eta Europako 16 surfleri onenetakoa gonbidatu dituzte; horien artean daude Eneko Acero getxoztarra eta Axier Muniain zarauztarra. Esan bezala, apirila baino lehen egin behar dute txapelketa, orduan amaituko baita olatu egokiak edukitzeko itzarote-epea. Behin txapelketa deituta, lehiaketako zuzendariak hartuko du azken erabakia, egin edo ez egin: gutxieneko baldintzak betetzen ez badira, txapelketa bertan behera gera liteke. Proba baino egun bi lehenago egingo dute deialdia, eguraldiaren iragarpenaren arabera.

Probaren egunean, surfleriak Punta

Galeako itsaslabarretik edo itsasontzietatik sartuko dira uretan; bertan egongo dira erreskate-moto bi eta Gurutze Gorriko ontzi bat. Jendeak itsaslabarretik ikusi ahalko du txapelketa.

Sariei dagokienez, 6.000 euro banatuko dute esku-dirutan eta txapeldunak gonbidapena jasoko du Big Wave World

### «Egun bi lehenago deituko dute proba, eguraldiaren iragarpenaren arabera»

Tour olatu handien munduko zirkuituaren barruko beste proba batean parte hartzeko. Horregaz lotuta, esatea aurten lehenengo zirkuitu horren barruko Europako proba bakarra izango dela Getxokoa. Borja del Saz Getxo Surf Taldeko presidentea dioenez, "Big Wave World Tour-en barruko proba izanda, gero eta kanpoko surfleri gehiago etorriko da, txapelketari ospe handiagoa emanez". Informazio gehiago topatuko duzu interneten: [www.getxo-surf.es](http://www.getxo-surf.es) eta [www.euskalsurf.com](http://www.euskalsurf.com). ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Asier Goñi Urtiaga** > Newcastle upon Tyne

“Hobe da hiru garagardo eskatzea, eta ez bi...”

Gure kale-katuak lotu barik dabilta munduan; nonahi dago uribekostarren bat, batzuk urruti, besteak hurbilago. Europan lotuko gara oraingoan, Ingalaterran; izan ere, Newcastle hirian dago Asier Goñi Urtiaga algortarra. Ingeniaritza kimikoa ikasi zuen Goñik Euskal Herriko Unibertsitatean eta doktoretza egitera joan da Newcastle-era. Urte bi dira hara iritsi zela eta gutxienez beste urtebete emongo du bertan, behintzat doktoretza amaitu bitartean. Bera izango dugu gidari onena hiri ingelesa ezagutzeko, baita bertako ohiturak eta tabernak ezagutzeko ere.



Karrera amaitu eta, Donostian pare bat urtez zentro teknologiko batean lan egin ostean, Newcastle-era joan zen doktoretza egitera Asier Goñi Urtiaga algortarra.

#### Zer bisitatu eta zer ez galdu

Ingalaterra iparraldeko meatzaritza eta industriaren sustraiak ditu Newcastle-ek. Leku aproposa da bertokoakaz nahasteko eta arrastia tabernan pasatzeko dar-doetan jolasten, edota gauean parranda zoroa botatzeko ikasleakaz. Tyne ibaia zeharkatzen duten zazpi zubien artean ibiltzea edo kostaldera joatea ipar itsasoko haizea gozatzera; ez ahaztu txamarra!

#### Harritzeko modukoa

Mundu osoko jendea ikusteak harritu ninduen, kolore eta ohitura ezberdinetakoak; batez ere unibertsitatean. Tabernan familia bereko hiru belaunaldi batera ikustea ere bitxia da. Baina ez ei da harri-

tzekoa bertokoez egiten duten ingelesa (geordi-a) ondo ulertzeko urte bi baino gehiago behar izatea.

#### Zer jan

Tabernan domekako *Sunday Roast* edo kostaldean *Fish & Chips* hartzea da tipikoena, baina mundu osoko jatetxeak ere topa daitezke. Egun luze baterako onena da *Full english breakfast* gosaltzea: arrautzak, hirugiharra, saltxitxa eta indabak. Hori bai energia iturria!

#### Kontuz!

Tabernan garagardo bi eskatuz gero atzamarrakaz lagunduz... eskuaren keina txarrera har dezakete: esaten dutenez, aspaldiko gudetan, frantsesek arku-lari ingelesei atzamar horiek moztzen zizkieten, horrenbestez, keinu hori irain moduan erabiltzen zuten. Onena da hiru garagardo eskatzea, badaezpada ere... ○



#### Nor da

**Nongoa**  
Algortakoa  
**Adina**  
28  
**Zertan dabil**  
Doktoretza egiten Newcastle-eko Unibertsitatean  
**Ikasketak**  
Ingeniaritza kimikoa, Euskal Herriko Unibertsitatean  
**Zenbat denbora Newcastle-en**  
Urte bi daroa eta gutxienez beste urtebete doktoretza amaitzeko

#### Non dago

**Lurraldea**  
Ingalaterra (Erresuma Batua)  
**Erlijioa**  
Ofiziala kristianismo anglikanoa, baina beste erlijio asko dago  
**Hiria**  
Newcastle upon Tyne, Londres hiriburutik 400 km-ra  
**Kokapena**  
Ingalaterra ipar-ekialdean  
**Azalera**  
113 kilometro koadro  
**Biztanleria**  
280.000 pertsona inguru  
**Hizkuntzak**  
Ingelesa eta geordie dialektoa  
**Dirua**  
Libera esterlina

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com) webgunera jo.

# Maju. Lurpeko munduan.

**Aurreko atalean Mari jainkosa aipatu genuen, oraingo honetan berriz, bere bikotea den Maju izakia aurkeztuko dugu. Izaeraz isila da eta lurpean ezkutatzen da, kobazulo sakonetan, haitzulo bihurrietan, lurpeko mundura daramatenak horietan.**

Maite duenaren ahotsak eskatzen dionean bakarrik irteten da bertatik, lurraren gainazalera. Hori, normalean, barikuetan gertatu ohi da.

Hori dela eta, ikusten zailenetakoa izan den izakietakoa dugu. Edonola ere, egon dira bizitokitza dituen kobazulo sarreretan ikustea lortu duten zorioko pertsona batzuk, baina ez digute kontatu fisikoki zelakoa den horrenbestez, gure irudimena erabili beharko dugu zuei aurkezteko.

#### Kondaira

Haizeak indarrez areagotzen ziren, eta, aldi berean, zerua estaltzen hasten zen hodei lodi beltzez. Txarrena etortzeko zen.

Peio, artzain zaharra, Lakora hegalean zegoen, bere artalde handia otso, hartz eta gainerako piztien erasoaz babestuz. Kezkaturik zegoen, bere ardietatik bi ez zirelako inon ageri. Orduan gogoratu zuen: han, ehunka metro batzuk harantzago, paretak ireki egiten ziren, ia bisitaririk jasotzen ez zuen kobazulo zahar bat erakutsiz. Bisitaririk ez izatearen arrazoia, esaten zuten, mada-rikatuta egotea zen. Agian han egongo zirela pentsatu zuen, eta istorio zaharrei jaramonik egin gabe, harantz abiatu zen



Maju. Ilustrazioa: Daniel Castello

Koban sartu eta istant batzuk itxaron zituen, begi-niniak iluntasunera egoki zekizkion. Orduan, izutuko zuen zarata

**«Maite duenaren ahotsak eskatzen dionean bakarrik irteten da lurraren gainazalera»**

bat entzun zuen. Haitzuloaren barrualdetik zetorren. Jakin-mina beldurrari gailendu zitzaion, burua bihurtuaren ostean ateratzera bultzatuz.

Han ikusi zuenak zur eta lur utzi zuen, erreazionatzeko gai izan barik. Han

zegoen Mari, jainkosa handia, Maju noiz iritsiko zain. Istant batzuk igarota, Maju lurraren barrualdetik sortu zen, han bizi baitzen, eta bi maitaleek elkarren desioei bide egin zieten.

Orduantxe egin zuen atzera Peio, bikotea unetxo batez ere bistatik galdu barik.

Azkenean kobatik irteten zenean, tximistak eta trumoiak etenbakoak ziren, txingorak burua indarrez jotzen bazion ere, artzainak korri egin zuen eta ez zen gelditu Izabara iritsi zen arte. Han entzun gura izan zioten guztiei kontatu zien kontakizuna. ○



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua      Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburesak      Ogitartekoak  
Sanwichak      Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**LAUREN**

GOSARIAK  
PINTXOAK  
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA

**SOPELA**  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina trianguetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pello asado, txulettoa, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad

EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO - Erreserbak 658 89 56 93 - Tf. 94 668 13 34



**JAN TOBI ORMAZABAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:

94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO

[pintxotan]

# Kalabazina, jaki izarra

gazta eta tipularen gozoak lagunduta



Igurtzeko gaztak eta tipulak sekulako ahogozoa ematen diote pintxoari

**Kalabazina dugu** pintxo honetan protagonista nagusia; gustuko izanez gero, hortxe duzu aukera modu erraz eta azkarrean haregaz gozatzeko. Izan ere, gazta zein tipulagaz lagunduta kalabazina pintxo honen arima eta bihotza da. Lehenik eta behin, kalabazina xaflatan moztu beharko dugu, xafla horiek irinetan pasatu ostean, arrautzetan pasatu, eta orduan frijituko ditugu. Bestalde, tipula moztu eta gero hura gorritu beharko dugu zartaginean. Horrenbestez, kalabazina frijituta eta tipula gorrituta izango ditugu prest. Hala, bakarrik faltako zaigu igurtzeko gaztari merezi duen protagonismoa ematea; horregaz baina, zer egin hurrengo lerrootan ikusiko dugu.

Pintxoa osatzen hasteko, ogi xafla baten gainean tipula gorritua jarriko dugu, gainean 2 kalabazina xafla frijituta; erdian barriz, igurtzeko gazta jarriko dugu, eta azkenik beste xafla bi kalabazina goialdean, hauek pintxoaren txapela bailiran. Azkenik, eta etxeok zein lagunak aho zabalik uzteko Pedro Jimenez izeneko murriztapena bota diezaiokegu; horrela, pintxoa apaintzeaz gain, zaporea areagotuko dugu. Eta hortxe duzu hamabost minutu inguruan egindako pintxo erraz bezain gozoa. Horrenbestez, ez galdu denbora eta irudimenari eragionu kalabazina lagun duzula! o

**Osagaiak: kalabazina, tipula, igurtzeko gazta, arrautza, irina, ogia**



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROI PORTUA  
Ariñu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak  
Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURIMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Hainbeste denbora itxoin ostean, azkenean egingo duzu merezitako bazkaria lagunakaz Durangon, Liburu Azokaren aitziagiagaz. Kontuz ibili parrandan, pasa barik!

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Badirudi iritsi dela hain gogoko duzun negua. Gauaren eta hotzaren lagun, itzalez eta misterioz betetako sasoiaren zale... otsoei bezala uluka entzungo zaitugu ilargipean?

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Oso lanpetuta ibiliko zara asteotan. Dana azken unerako utzi duzu, ohiko legez, eta orain tokatzen zaizu klaseko lan danak egitea eta ikastea. Aurrekoetan ere lortu duzu, eutsi!

**AITZURRA**



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Zertara dator hainbeste kexa eta negar? Horretan denbora galdu baino hobe zenuke zerbait probetxugarria egin. Baliatu datozen egunak, irudimentsu ibiliko zara-eta.

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Zorutzen ibili zara azken aldiaren lanez gainezka eta orain merezi duzu atsedean hartzea. Bidaia merke izaten dira sasoi honetan; munduko zein txokotara joan gura duzu?

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Erabat obsesionatuta zabilta liburua horiekaz: lorik ez, jan gitxi... azkenean gaixotu egingo zara! Jakin badakigu irakurtzea ona dela, baina zurea ez da irakurtzea, zurea letrak irenstea da!

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Pozik bizi zara zu! Lanik ez, ikasi ere ez, eta egun osoa pasean eta lagunakaz solasean: erretiroa hartu zenuenetik zoriotsu zara. Segi horrela, hainbeste lanen ostean merezi duzu-eta!

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Gabonetan zer oparitu ez dakizula? Egunotan aukera parebakoa daukazu Durangora hurbildu eta liburu edo diskoren bat erosteko; kultura oparitzea beti ei da eskertzekoa.

**IRATZEA**



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Danak hasi dira zorutzen Gabonak datozela-eta, baina zuk buruan daukazuna da Santo Tomas eguna: ospakizuna eta baserriko produktuen dastatzea. Ipini jantzia eta gozatzera!

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Medikuarenera joan eta dieta egiteko esango dizu. Gabonak datozenez, urte barrirako utziko duzu; baina eginbeharrak pilatu eta udarako utziko duzu: beti dago aitzakiaren bat.

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Hotza iritsi da eta negurako arroparik ez daukazu. Lasai, merke lortzeko aukerak daukazu: Olentzerori eskatu, bigarren eskuko arropa-denda batera joan edo lagunengatik eskatu!

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Behobiatik Donostiarako lasterketa egin zenuenetik ez zara gelditu: beti entrenatzen eta korrika. Hurrengo erronka zein daukazu, maratoia? Hartu lasai, urtarrileko aldapa igotzeko energia beharko duzu-eta.

Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan




Urbe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Lurralde edo herri batean bizi diren gizakiak, bizilagunak.
2. Pedro Axularren benetako deitura. Haragia inguratzen duen mintza.
3. Txiro, pobre. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarrez.
4. Aramaioko elizatea. Estatu Batuek eta Kanada arteko aintzira handia.
5. Kanpo, landa. Ate, hitz elkartzetan. Edo.
6. Planeta baten inguruan dabilen argizagi.
7. Hego Amerikako estatua. Itsasbazterra, itsasertza.
8. Modua. Ozta. Musika nota, eskalan zazpigarrena.
9. Fruitua azukretan prestatua.
10. Bokala. Bizkaiko udalerri bateko biztanle.

Goitik behera

1. Ergela, kaikua. Larrazaleko orina.
2. Paretak eta hormak egiten eta konpontzen ditu.
3. Arra, zabaldutako eskuko hatz lodi eta txikiaren arteko bitartea. Nafarroako udalerria, Urumealdean.
4. Erabili, jokatu. Frantziaren ikur kimikoa.
5. Eibarko santutegia. Esaten ari da.
6. Ipar Euskal Herrian, oso, arras. Ultzamako kontzejua.
7. Kontsonantea. Selenioa. Atomo kargadunak.
8. Giro, eguraldi. Harrapa ezak!
9. Atx!, otx!. Bilo edo ile asko du.
10. Karrika. Gipuzkoako Urola Kostako herri bateko biztanle.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nor da zenbaki honetako Jentilbaso ataleko protagonista?

> Aurrekoaren erantzuna: Galea  
> Irabazlea: **Andere Gonzalez**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

Zenbatekoa da Olentzeroren zabagia?

- 5 kilokoa
- 5 arroakoa
- 5 litrokoa

> Aurrekoaren erantzuna: abenduaren 3a  
> Irabazlea: **Laida Fuertes**  
\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Argia**  
astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan

SARIA **berria**  
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



KARMEN GARAI UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

**GORLIZKO BRODATZAILEAK, 1948**

**Eloisa Artaza** kaleak (garai hartan estrata bat zen eta gorliztarrek "Carretera del matadero" deitzen zioten) eta Itsasbide kaleak (orduan, diktaduraren ondorioz, "General Mola" deitua) bat egiten duten kurba horretan, hortxe zegoen, gutxi gorabehera, Sole Larrazabalen etxea; etxe horren aurreko solo txiki batean agertzen dira goiko brodatzaileak lanean. Etxe honetan Patrik, bere ahizpak, josten eta brodatzen irakasten zien arrastiro, astelehenetik barikura, hiruzpalau ordutan eta beraiek hileko zerbait ordaintzen zuten. Geroago Patriren etxera aldatu ziren. Gehienak ezkondu arte (eta bide batez ezkontzarako arria prestatzen) egoten ziren. ○

**Ezkerretik hasita:** Benita Murua, Enelia Diliz, Espe Bilbao, Patri Larrazabal "Patriagur" (GB), Karmen Garai, Edurne Ansotegi, Beatriz Larraz, Nieves Urrutia (GB) eta Begoña Pleaga.

**REYES PRADOS RODRIGUEZ** > kazetaria

# “Txarto pasatzen dut etxe-desjabetzen barri emotean”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Sentikorra eta sentimental naiz, enpatia daukat; eta alaia naiz.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Hizkuntzakaz zerikusirik daukan edozerregaz, oso gustuko ditut-eta.

**Eta zertan ez zenuke jardun gura?**

Zientziagaz lotuta dauden gauzetan: adibidez, matematikak; ingeniari banintz nireak egingo luke!

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Seguruenez nire senarra.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Zoriontsu bizitzea senideak alboan ditudala eta gurasoak gertu izatea; izan ere, gaur egun fisikoki urrun daukat.

**Eguna ala gaua? Zergatik?**

Lehena etorri zait burura eguna, argia oso gustuko dudalako. Baina gauz ere gauza asko egin daiteke: bakoitzak badauka berea.

**Parrandarik politenak non?**

Bardin dio non: parranda ederrak egin ditut Bilboko Aste Nagusian, baita Sevillan ere, hara noan bakoitzean, bertako lagunakaz.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Dana barkatzen dut; okerrak egin dizkidate, baina barkatu ditut.

**Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?**

Oraintsu telebista-programa bietan asko aipatu dugun gai bati buruz, oso sentsibilizatuta gaude-eta: etxe-desjabetzeak amaitu direla; oso txarto pasatzen dut horrelako barriak emon behar ditudanean.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Mundaka, eta bertatik begiratzea Laida hondartza.

**Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?**

Uste dut galdera danak erantzuten ditudala. o

**LABURREAN**— Jatorriz andaluziarra dugu Reyes Prados Rodriguez ETB2-ko aurkezlea (Sevilla, 1982), baina gure artean daroa bost bat urte: hasieran lagun bat bisitatzea zetorren eta, azkenean, lanerako eskaintza egin zioten. Gaur egun telebista saio bi aurkezten ditu kazetariak: *Euskadi directo* eta *De boca en boca*. Gainera, behar denean, Klaudio Landa ordezkatzan du *Ni mas ni menos* saioan. Eta horrela segituko du, oraingoz ez dauka asmorik Sevillara itzultzeko. Behar izanez gero, pozik itzuliko litzateke; baina, gaur-gaurkoz, gure artean geratuko da.

# Txan Magoa

Abenduak 22, 12:00etan eta 17:30ean

antolatzailea: BIZARRA LEPOAN  
 babesleak: Getxo, EUSKARA BIZI, BFA DFB, EUSKAL PARRANDAKO ELKARTEA

**Non:** Andres Isasi Musika eskolan, Areetan.  
**Sarrerak:** 2 euro, Bizarra Lepoan euskara elkartearen bulegoan, Areetako Kukupraka Ludotekan (ordutegiak [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org) blogean)

Info+: [www.bizarralepoan.org](http://www.bizarralepoan.org) // [info@bizarralepoan.org](mailto:info@bizarralepoan.org) // 94 491 03 87

Martikoena kalea 16, 2.solairua-4.bulegoa; Algorta

# A ze bikotea, pintxoa eta potea!



GetxOn  
egin

**IV. Pintxo lehiaketa**  
Abenduak 15/16

**Pintxotan eta berbetan!**

[www.getxo.net/euskara](http://www.getxo.net/euskara)

